

Jubene
Aperitia

2018

Ipuinak • Olerkiak • Bertsoak

Julene Azpeitia lehiaketa



2018. urtea

Argitaratzailea: _____




DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



KULTURA SAILA

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2018. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1424-2014

2018ko azaroa

HITZAURREA..... 7

Olaia Albizu Gallastegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

IPUINAK

AITORREN BIZARRA 11
Saioa Garrido Garamendi

JUNE ETA MAITEREN ABENTURAK 17
Naroa Egia Sarraoa

ITSASOKO SOINUAK..... 23
Danel Totorikaguena Salterain

MARIREN KOBAZULOTIK TRENERA..... 29
Nahia Dominguez Gorostiaga

HAIZE..... 37
Leire Vargas Nieto

IZARRAK EGUN ARGITAN..... 49
Amaia Intxausti Montorio

AMETSEN PINTZELA 61
June Azkarate Irigoras

ERROMERIARA ISIDOROREKIN 69
Nerea Unzueta Jaio

KONPROMISOZ 79
Igor Mercado Azcuenaga

OLERKIAK

| | |
|---|-----|
| BIZITZA | 91 |
| <i>Unai de Miguel Solozabal</i> | |
| | |
| BADIRA HAMAR URTE | 95 |
| <i>Olaia Milikua Garcia de Cortazar</i> | |
| | |
| URDINA EI DA KOLOREK EPELENA..... | 99 |
| <i>Xixili Bengoetxea Llona</i> | |
| | |
| EGUR BEGIAK | 103 |
| <i>Mikel Esteban Urtiaga</i> | |

BERTSO PAPERAK

| | |
|--------------------------------|-----|
| BARATZEKO BERTSOAK..... | 109 |
| <i>Aitor Forjan Gonzalez</i> | |
| | |
| AR(I)MAGABEKO KONPLIZEEI..... | 113 |
| <i>Manu Goigana Bengoetxea</i> | |

Kaixo denoi,

Hogeita hamar urte dira Udaleko Euskara Sailak Julene Azpeitia lehiaketa abian ipin zuenetik. Harrezkero, ehunka amets, nahi, kezka, emozio transmititu dizkigute ume, gazte eta nagusiek idatzitako ipuin, olerki eta bertso-paperen bidez. Hogeit urtetan asko aldatu da gizartea, beraz, ohiturak eta harremanak izateko moduak ere bai, baina lehiaketaren lehen helburua beti izan da eskola adinean dauden ume eta gazteengan euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna piztea. Badakit aro digitalean bizi garela, teknologiak asko aurreratu duela eta, askotan, pantaila baten menpe bizi garela, ezer egiteko astirik barik. Idaztea oso ariketa egokia da nor bere buruarekin patxadaz egoteko, sentimenduak, ametsak, emozioak eta abarrekoak adierazteko, eta horretan, gazteenak, lehengoak eta oraingoak, trebeak direla erakusten ari dira.

Guk, udaletik, zalantzarik ez dugu izan Julene Azpeitia lehiaketa eta ume eta gazteei zuzendutako antzeko ekimenak bultzatzeko; eta bide horretan segitzeko asmoa dugu. Hala ere, norbanako nagusiok ardura handia dugu gure gazteenak normaltasun osoz euskaraz hazi eta bizi daitezen. Horretarako, jakina, irakurtzeaz eta idazteaz gain, garaiotan ahozkoasuna eta ahozko erabilera dira denon kezka handiena.

Beraz, tartetxo hau aprobetxatu gura dut batetik, gure idazle gazteei esateko oso pozgarria eta aberasgarria dela ipuinen, olerkien eta bertsoen bidez, euren bizipenen berri izatea, eta bestetik, animatu gura ditut idazle trebeak diren neurrian, ahozko euskararen transmisore ere izan daitezen.

Eskerrik asko eta besarkada handi bat.

Olaia Albizu Gallastegi

Euskara, kultura eta hezkuntza batzordeko presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 1 8

ipuinak 



Antur
Sari
Dintz
Izarr
Izarr
Isidor
promisi
el
a



Saioa
Garrido Garamendi

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean
Zabalarra Eskola

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Aitorren bizarra

Egun batean Aitor baso zahar batean zihoan paseatzen. Aitor 50 urteko gizona zen eta natura pilo bat gustatzen zitzaion. Burusoila zen eta bizarduna. Gainera, beti zeraman txapela bat burua apaintzeko.

Bera bazihoan patxadaz ibiltzen eta arkakuso bat sartu zitzaion bere bizar zuri eta luzean. Agian zeozer susmatu zuen baina ez zion eman garrantzia handirik.

Gure arkakusoa lehen egunetan oso beldurtuta zegoen, berarentzat mundu berri bat zelako. Pixkanaka-pixkanaka ausardiaz hasi zen ibilaldi luzeak ematen arkakusoen erara: saltoka.

Laster, arkakusoak bere gustukoa aurkitu zuen bizarra, eta konturatu zen ondo bizi zitekeela han. Bizarrean janari pilo bat aurkitu zuen: patata frijituak, fruitu lehorrak eta abar. Aitorren bizarra oso zikin zegoen ez zuelako garbitzen.

Arkakusoa ohitzen hasi zen eta erabaki bat hartu zuen: han eraikiko zuen habia.

Goiz batean bere etxea egiten hasi zen. Ile gogor batzuk hartu zituen eta habia prestatu zuen. Egun horretan zorte handia izan zuen gainera: bazkaltzeko espagetiak aurkitu zituen.

Arkakusoen bizitza zorionsua izan zen une horretatik aurrera. Gainera, Aitorrek, ura edaten zuenean, arkakusoak dutxatzeko erabiltzen zuen eta janari beroarekin, zoparekin adibidez, bere etxetxea berotu ahal

zuen. Gainera, ia egunero, Aitorrek zopa jaten zuen, bere platerik gustukoena.

Aitorrek bi seme-alabak zituen: Saioa eta Ekhi. Hurrengo eguna, apirilaren hamazortzia, bere alabaren urtebetetzea zen. Saioak hamaika urte beteko zituen.

Saioak eskolako hogeit hamar urteko gonbidatu zituen txokolatadara, eta lehengusuak eta lehengusinak eta amama eta aitite. Han bere lagunik hoberenak egon ziren: Maier, Luzia, Ixone, Amagoia.

Amagoiaren amak, Maddik, esan zigun Amagoiak zorri pilo bat zituela eta mesedez ez usteko Amagoia inori asko hurbiltzen, ez zuelako inor kutsatu nahi.

Jan ostean neska-mutil guztiak futboleko jolasten hasi ziren, eta istripu bat gertatu zen. Amagoia lurrera jauzi zen Ekhi bultzatu zuelako eta negarrez hasi zen odol asko irteten zitzaiolako sudurretik. Ekhi barkamena eskatu zion eta Aitor konturatu zenean zer gertatu zen, hurbildu egin zen laguntza eman nahian.

Aitorri ahaztu egin zitzaion Amagoiaren amaren abisua, eta une horretan zorriak pasatu ziren bere bizarrera.

Eta han ezagutu ziren zorriak eta arkakusoa...

Lehen momentutik txarto konpontzen ziren eta guda txiki bat hasi zen euren artean. Aitorren bizarra guda-zelai bihurtu zen. Eta azkura nagusitu zen.

Lehenengo momentutik zorriak bizarraren beste aldera mugitu ziren, beren etxea egiteko, baina guda nabaria zen eta ile-tiratzeak ere handiak ere bai. Arkakuso eta zorriak ezin ziren bizi denok batera. Ezin zuten bakea lortu ezta borroka irabazi ere.

Arkakusoak bere etxea handitu zuen harresiak eraikiaz eta zorriek bere aldetik tranpak kokatu zituzten hainbat bide eta lekutatik. Une horretan ezinezkoa zen Aitorren bizarrean bizitzea.

Bitartean, Aitorren azkura larriagotu egin zen. Nahiz eta bizarra apaindu azkura geroz eta handiagoa zen. Aitorrek erabaki bat hartu zuen: botikara joan eta sendagai bat erosiko zuen.




Pozik, etxera itzuli eta, jarraian, komunean, bizarrean botika botatzen hasi zen.

Arkakusoak eta zorriek ez zekiten hori zer zen. Ur moduko likido batekin busti zuen bizar guztia. Ez zen ura, eta arkakuso eta zorri guztiak gaixotu egin ziren baina hori ez zen izan txarrena. Bizarrean orrazia pasatzen hasi zenean ileak garbitzen, lurrikara bat sortu zen.

Azkenean intsektu guztiak hil egin ziren eta Aitor bakean gelditu zen. Borrokan inork ez du irabazten.

ipuinak 



Naroa
Egia Sarraoa

Akzesita 11 -12 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



June eta Maiteren abenturak

Bazen behin June izeneko neska bat. Indartsua, ausarta eta korrikan oso arina zen. Izaban bizi zen eta hainbeste zuhaitzen artean, tximinoa bezala ibiltzen zen zuhaitz batetik bestera. Abentura zalea zen oso. Bere lagunik onenarekin (Maiterekin) jolasten zebilela, altxor baten mapa aurkitu zuen. Maiterekin hurrengo egunean altxorraren bila joango zirela adostu zuen. Altxorra eskuratzeko bi proba gainditu behar ziren. June oso pozik jarri zen eta gauzak prestatzeari ekin zion. Gauean June ametsetan zebilen ea zein izango ote zen altxorra. Bere ametsetan behintzat, altxorra, zuhaitz parke erraldoi bat zen. Maite eta beretzako bakar-bakarrik. Oso amets polita buruan zuela, esnatzeko ordua iritzi zen eta horrekin batera bidaiari hasteko ordua ere bai. Gogoan du June, behin etxetik ihes egin zuela beste abentura bat hasteko eta oraingoan ere gauza bera egin beharko zuen.

Eguna iritzi zen bidaiari hasteko. Maitek eta June urrutiko oihan batera joan behar zuten probak gainditu eta altxorra aurkitzeko. Bidaiari zehar, munduko mendirik altuena igo, errekarik luzeena beste aldera pasatu eta basamorturik beroena igaro ondoren, iritsiak ziren oihanera.

Oihan barruan zeudela, lehenengo gauza, animalia berriak ezagutzea izan zen. Hainbeste denbora eman zuten animaliok aztertzen ze, azkenean, galdu egin ziren. Zurezko etxea egitea bururatu zitzairen. Ahal

izan zuten egur guztiak bildu eta etxea eraiki zuten. Bertan lo zeudela, Junek lehoi baten oihuak entzun zituen. June zer gertatzen zen ikustera joan zen. Gizon bat lehoiari tiro egin nahian zegoen. Junek lehoiaren alde egin zuen eta gizonari atzetik eraso egin eta eskopeta kendu zion. Eskopeta ahalik eta urrunen bota zuen Junek, eta gizonak alde egin zuen. Hurrengo egunean basoko etxeko atarian ohartxo bat zegoen itsatsita; hauxe zioen: “Altxorrerako lehenengo proba gainditu duzue, orain bigarrena falta da”.

June eta Maite oso pozik jarri ziren.

Etxea hustu zuten, bidaian aurrera egiteko prest. Oraingoan, munduko izotzik hotzeta eta basamortu ez hotz ez beroena igaro behar izan zuten. Sinesgaitza dirudien arren, bidaia erraz egin zuten, baina neke apur bat ere bazuten. Zurezko beste etxe bat egin zuten, baina oraingoan laku baten ertzean.

Txori baten txio-txioak entzuten ziren, Maite eta June txoriarengana hurbildu eta ikusi zuten oso txikia zela, eta pentsatu zuten galdurik zegoela. Maite oso ona zen txorien soinuak imitatzen, eta bele txiki bat zenez, belearen soinua egin zuen bele-kumearen ama edo aita, edo beste beleren bat, etorriko zenaren esperantzan.

Azkenean, bele-ama etorri eta beletxoarekin alde egin zuen poz-pozik. Berriro ere loak hartu zuten zurezko etxean.

Biharamunean, beste ohartxo bat aurkitu zuten etxeko atarian zera zioena: “Bigarren proba ere gainditu duzue. Orain altxorra aurkitu behar duzue. Hemen daukazue mapa bat”.

Mapa horretan pausoak agertzen ziren: 10 aurrera, 5 ezkerrera, 20 aurrera eta beste 8 ezkerrera. “Hor dagoen kobazulora sartu eta altxorra atera”.

Neskek altxor kutxa atera eta barruan zer zegoen begiratu zuten. Kutxa barruan beste ohar bat zegoen, eta mezu hau: “Altxor kutxa aurkitu duzue bai, baina, altxorra ez dago altxor kutxa barruan, altxorra zuek egindako bidaia da”.

Neskak poz-pozik jarri ziren eta etxera ere itzuli ziren, bai.





Danel
Totorikaguena Salterain

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Itsasoko soinuak

Egun euritsua zen, Isabel etxean zegoen, brodatzen.

Bere amarekin bizi zen, baina ez oso ondo. Ez zeukaten dirurik ez lanik, baina, biak batera, aurrera egiten zuten, ahal bezala.

Bat-batean, soinu arraro bat entzun zuten, baina ez zioten kasu handirik egin. Hortik apur batera, soinua euren interesa esnatzen hasi zen apurka-apurka, soinu hura liluragarria iruditu arte.

Euren zereginak bertan behera utzi zituzten biek, eta leihoak zabaldu zituzten. Sorginkeria izango balitz bezala, Isabel emozioz negarrez hasi zen eta bere malkoak euri tantekin nahastu ziren lurreko putzu batean.

Soinua barku batetik zetorren, barku handi batetik.

Amak Isabeli barkura hurbiltzeko esan zion, eta kapitaina etxera gonbidatzeko, horrela soinua hobeto entzungo zutela. Isabel barkura abiatu zen, euri artean. Etxetik atera zenean, ez zuen ezertaz pentsatu ere egin, baina, geroago, bere onera itzuli eta pentsatzen hasi zen. Ea benetan ondo egiten ari zen barkurantz joatean eta ea zer esango zion kapitainari. Isabel oso urduri jartzen hasi zen, bere buruari bueltak emanez. Bidea segundo gutxikoa izan arren, oso luze egin zitzaion.

Barkura heldu zenean, Isabellek oso sentsazio txarra izan zuen; kapitaina bertan zegoen, etorriko zela jakin izan balu bezala. Nahiko zaharra zen eta bizar urdina zuen. Zapata erraldoiak zituen. Inpresio txarra ematen zuen: itxura zikina zuen.

Amak bidali zuela esan zion Isabelek, eta bere etxera gonbidatu zuen, deskantsatzera eta etxea ikustera.

Isabel, kapitainaren begirada sarkorragatik, beldurtu egin zen, baina hitz egiten jarraitu zuen, etxera etortzeko konbentzitzen. Soinua nondik zetorren ere galdetu zion Isabelek, baina ez zion erantzun, misterio bat zen.

Kapitainak, lanpetuta zegoela esan zion, eta hobe izango zela alderantziz egitea. Kapitaina erdi barrezka zegoen, bere hortz zikinak erakutsiz. Isabel gero eta deserosoago zegoen, kapitainaren intentzioak ez zirela onak sentitu zuen, baina ez zuen ulertzen zer egin nahi zuen.

Kapitainak keinu bat egin zien bere lagunei, eta marinela hurbiltzen hasi zitzaizkion. Asko ziren eta, erreparatu orduko, bi pausutara zeuden denak.

Orduan, Isabelek buelta eman eta ihes egiten saiatu zen, baina beranduegi zen jada. Kapitainak, heldu eta lo-belarra ipini zion aurpegian.


Isabel seko erori zen, loak hartuta...

Isabel barkuaren sotoan esnatu zen, zorabiatuta. Kapitaina eta beste gizon baten arteko eztabaida entzuten ari zen. Gizona kapitainari neskaita askatzeko konbentzitzen saiatzen zen, baina kapitainak ezetz eta ezetz esaten zion. Ez zuen oso ondo entzun, baina ahotsak gero eta altuagoak ziren, eta, bat-batean, PUM! Tiro bat entzun zen.

Isabel asko beldurtu zen. Sototik irteteko modu bat bilatzen saiatu zen baina oso ilun zegoen. Azkenean, eskailera batzuk aurkitu zituen eta gora igo zen: iluntzeko argi horixkak barkua argizatzen zuen.

Kapitaina hor zegoen, itsasoa begiratzen. Isabelen presentziaz ohartzean, buelta eman zuen.

Isabel hitz egiten saiatu zen baina kapitainak moztu egin zion. Bere etxera itzultzeko erregutu zion, baina, ez zuen ezertarako balio izan. Kapitaina barrezka hasi zen, eta, “neska xarmant” deitzen. Hau entzuterakoan, Isabel oso deseroso sentitu zen.



II
-12

Orduan, marinela hurbiltzen hasi ziren, berriro ere, irribarre beldurgarri batekin. Orduan konturatu zen Isabel zein zen haien asmoa...

Isabelek lurretik ezpata zahar bat hartu eta bihotzetik sartu zuen. Bere gorpua lurrera erori zen, ontzi-zoruko oholak mugiaraziz.

Marinel guztiak zur eta lur gelditu ziren, ez zekiten zelan erreazionatu. Geroago, elkarri begiratu zioten, uzkur.

Inor ez zen ezer esaten ausartu. Ezustekoa pasa ondoren, neskatxaren gorpuarekin zer egingo zuten galdetzen hasi ziren. Batzuk ezkutatzea nahi zuten, beste batzuk itsasora botatzea, eta norbaitek erabiltzea ere proposatu zuen.

Azkenean, kapitainak erabaki zuen marinel bakoitzak zazpi muxu emango zizkiola neskatilari, eta, gero, itsasora botako zutela.

Lehen muxua kapitainak berak emango ziola erabaki zuten.

Bitartean, ama Isabelen bila zebilen, portuan gora eta behera. Iluntzen ari zen. Ez zuen gertatutakoaz ezer gogoratzen: brodatzen ari zen, bere alabarekin, soinu arraro bat entzun zuen eta hortik aurrera ez zegoen ezer gehiago bere oroitzapenetan. Etsiak hartuta zegoenean, hotz-ikara bat sentitu zuen gorputz guztian. Itsasora begiratu eta zerbait ikusi zuela iruditu zitzaion, olatuen uhinekin batera gora eta behera mugitzen. Orduan, soinu misteriotsua berriro entzun zuen, eta dena etorri zitzaion gogora. Etxera joan eta bere buruaz beste egin zuen.

Bere arima Isabelenarekin elkartu eta elkarrekin zerura joan ziren.

ipuinak 



Antur
Izarr
Isas
Antur
Izarr
Isidor
Ante
el



Nahia
Dominguez Gorostiaga

Akzesita 13 -14 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Mariren kobazulotik trenera

Bizkaian hainbat eta hainbat mendi daude, altuak, baxuak, arriskutsuak... Ni neu horietako bat naiz, altuena, 1.331 metroko altuerarekin. Dagoeneko, denok asmatuko zenuten. Ni Anboto naiz, aspaldi-aspalditik zutik dagoena eta egongo dena.

Gailurretik, urteetan zehar hainbat gertaera desberdin ikusi eta bizi izan ditut, bai beldurrezkoak, bai amodiozkoak, baita tristeak ere... era guztietakoak. Usain, zarata eta zaporeek hainbat gertakizun dakarzkidate oroimenera.

Esaterako, ekaitza datorrenean eta trumoia entzuten dudan bakoitzean, mendeetan nire bizilaguna izan den dama zoragarriaz gogoratzen naiz.

IV. mendea zen ezagutu nuenean, 387. urtea, hain zuzen ere. Urte hartako udaberri hasieran konturatu nintzen bizilagun berria nuela: Mari zuen izena. Hilabete gutxira jakin nuen bera zela naturaren Jainkosa. Haserre zegoenean ekaitza eragiten zuen, amorratuta zegoenean euri erauntsia... Ez hori bakarrik, Mari justiziaren jainkosa ere bazen. Bera zen zintzotasunaren defendatzaile eta injustizien aurrean zorrotz jokatzeko zuena. Berarengan sinesten zutenei laguntza eta opariak ematen zizkien, sinesten ez zutenei, aldiz, zigorrak.

Marik koba bat eraiki zuen nire magalean. Erabakiak hartzeko eta lasai egoteko lekua zen berarentzat. Gaur egun ere hor da kobazuloa eta, jakin

ezazue, Marik oraindik ere han jarraitzen du. Beraz, kontuz ibili esaten duzuenarekin!

Laztanak, musuak, kili-kiliak... elkarri egiten eta ematen ikusten dudak jendeak inbidia ematen dit. Nahi nuke nik ere bizidun izan horrelakoez gozatzeko. Zenbat aldiz ez nuen nik hori desiratuko duela sei mendeko neure magalean ezkututzen zen bikotea ikusita! Neguko egun hotz batean ezagutu zuten elkar. Kanean hotz zegoela eta, markesaren alabak nekazaria sutondora gonbidatu zuen berotzera. Beraien artean maitasuna sortu zen baina ez zieten batera egoten uzten: aberatsetan aberatsena eta pobreetan pobreena ezin batera egon! Horregatik, asteako asteazken guztietan nire magalean dagoen harri handi baten atzean ezkututzen ziren.

Luzaroan harrapatu ez zituzten arren, urte beteko maitasunari amaiera eman behar izan zioten, neskatoaren aitak alabaren sekretuaren berri izan zuenean. Neskatoa Frantziako konde batekin ezkontzera behartu zuten eta nekazaria Atxondoko baserrian geratu zen. Baina ez zuen inoiz ahaztu hainbeste maite zuen neska. Gauero-gauero, baserriko sutondoan jarrita, markesaren alabak sutondora gonbidatu zuen egunaz gogoratzen zen, eta begiak malkoz beteta loak hartzen zuen.

San Juan gaua izaten da urteko egunik luzeena. Makina bat su iziotzen dira gau horretan Durangaldeko auzo eta bazter guztietan. Ikuskizun polita izaten dut tontorretik, baina heltzen zaidan kearen usainak zorigaiztoko jazoera ekartzen dit gogora: 1500. urtean gertatu zen. Garai hartan, Euskal herrian sorginkeria salaketa asko egon ziren, horietako asko Durangaldean. Nik oso ondo ezagutzen nituen sorgintzat hartu zituzten haietako batzuk. Izan ere, nire inguruko belartzetan sendabelarrak hartzen zituzten. Zin degizuet ez zirela sorginak, naturak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzen zekien jendea baino ez zen. Beraien boterea horretan zetzan, eta ez deabruak emandakoan. Zoritzarrez, Torquemadak eta bera bezalako inkisidoreek epaitu eta erre egin zituzten. Durangaldeko berrogei pertsona epaitu eta torturatu zituzten: hamar emakume eta gizonezko bat sutan erre zituzten. Ez ditut inoiz ahaztuko haragi errearen kiratsa eta haran osoan entzuten ziren oihi ikaragarriak.

Egunero-egunero, dozenaka hegazkin pasatzen ikusten ditut zeruan, batzuk goi-goian, beste batzuk nire tontorretik gertu... Halako bat ikusten dudan bakoitzean, gertakizun bera etortzen zait burura. Durangoko bonbardaketa.

Dena trankil zegoen, eguazten goiz bat zen. Merkatua zegoen Andra Mariako elizpean. Jendea kanpotik etorri zen elikagaiak, ontziak, nekazaritzako tresnak... saltzera eta eroatera. Beraz, Durango jendez gainezka zegoen.


Bat-batean sirenak jo zuen, kanpaiak ere jotzen hasi ziren eta ekialdetik, hau da, Abadiño aldetik, hegazkinak agertu ziren. Hegazkinak ez ziren edonolakoak, gerra-hegazkinak ziren, hots, zaratatsuak, txikiak eta bonbaz beterikoak. Jendea zarataka, beldurtuta, seme-alabak aurkitu nahian... batetik bestera korrika hasi zen. Dena kaos hutsa izan zen. Txikizio itzela, eta hildako eta zauritu asko. Nik ere sufritu izan nuen gerra hura. Bomba asko eta asko nire gainera erori ziren. Gaur egun ere ikus daiteke bonben arrastoa. Makina bat soldadu hiltzen ikusi nituen Urkiola inguruko parajeetan. Ez nuke berriro horrelakorik ikusi nahi.

Usainak, laztanak, zaratak eta negarra aipatu ditut, baina ezin aipatu gabe utzi inoiz sentitu dudan minik handiena. Garai batean Atxondotik trena pasatzen zen. Orain ere trena ikusten dut Durangotik Matienara eta hemendik Berrizera. Zertarako behar duzue gizakiok beste tren bat? Zertarako egin hainbeste zauri nire magalari? Itzelezko mina sentitu nuen makina erraldoiek nire larrua zulatu zutenean. Oihuka hasi nintzen, orro egin nuen, laguntzeko eskatu nizuen baina gehienok entzungor egin zenuten. Ez dakit azkenean abiadura handiko trena deitzen duzuen hori inoiz ikusiko dudan, baina, dagoeneko, nire magaleko zauriei odola darie, eta tontorretik, duela gutxi arte ezin ederrago izan den paisaia, obrez, ormigoiz eta zubiz inguratuta dago.

Bai, nire larrua mindu, zauritu eta zulatu egin duzue. Hala ere, neguan elurra, udazkenean perretxikoak, udaberrian txibiritak eta udan eguzkiaren epeltasuna eskaintzen jarraitzen dut.

Asteburu eta festa egunetan mendiaz gozatzera etortzen diren mendizalez betetzen dira nire inguruak. Etorri lasai, zuen bisita

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



eskertzekoa da eta. Zuen barre alaiak, zuen jolas dibertigarriak, zuen jauzi arinek eta zuen berba hunkigarriak pozez zorutzen naute. Hori bai, aurkitu bezain garbi utzi nazazue eta kontu handiz ibili mendian gora eta behera ez baitira gutxi izan nire pasabideetan hil diren mendizaleak. Eta nire gailurrean lainoa ikusiz gero -Durangaldekoek horrelakoetan txapela dudala esaten duzue- eman buelta, euria datorren seinale baita.

Mari daukat kobazulotik deika. Iluntzen ari dela eta lo egiteko ordua dela esan dit. Ilargia dagoeneko irten da, eta ilargia ikusten dudan bakoitzean... baina historia hau hurrengorako utziko dut. Orain lotara noa.

ipuinak 



Antur
Sari
Dintz
Izarrak
Isidoro
promisioa
Izarrak
Isidoro
promisioa
Izarrak
Isidoro
promisioa



Leire
Vargas Nieto

Irabazlea 15 -16 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Haize

Egun hodeitsua zen, Euskal Herrian negu amaierako egun gehienak bezala. Asteartero lez, Adam ni eta nire inguruko instrumentuei hautsa kentzen zebilen, *The Clash*en kantaren bat abesten zuen bitartean.

Adamek beti tratatzen gintuen modu maitekorrean, ia lagunak bagina bezala; bizirik gaudela jakingo balu bezala.

Goiza lasai samarra izan zen; hamabost bat bezero, haietatik hamabik erosi zuten gauzaren bat edo beste. Bat ere ez zen nigana hurbildu, haietako batek piano bat erosi nahi izan zuen arren. Handi-handia zen lokala, eta instrumenturik garestienak erdialdean edo erraz ikusteko moduko lekuan zeuden, eroslearen arreta erakartzeko helburuarekin. Adamek beti galdetzen zien bezeroei beraien aurrekontua zein zen, eta berari gehien gustatzen zitzaizkion produktuak erakusten zizkien, beraiek bilatzen zuten prezioa gainditu gabe. Haren aitak, berriz, Peruk, gauzarik garestienak erakutsi ohi zituen lehenengo. Hala ere, 30 urte aurrerago, lokal txiki batean, negozio hau hasi zuena bera izan zela jakinda, ezin esan estrategiak txarto funtzionatu zuenik.

Gauza guzti horiek hiru hilabete zehar, egun osoa bertan igaroz ikasi nituen; hiru hilabete lehenago ekarri baininduten dendara, Txinako fabrika batean egin-berria nintzenean. Heldu nintzenean kexatu egin zen Peru, krisia zela eta, zaila izango zela halako bat saltzea; nik ez dakit arrazoirik zeukan, izan ere, bazeuden beste instrumentu batzuk heldu eta

segituan saldu zirenak, eta beste batzuk dendan urte erdi zeramatzatela ziruditenak.

Baina, arratsalde hartan, gizon bat sartu zen *Gabiola Musika Ekipamenduan*, bere alabarekin. Altua eta argal samarra zen gizona, eta, disimulatzen saiatzen ari zen arren, barruan zulo handi bat zeukala zioen bere begiradak. Ez zen zatarra; izan ere, oso ederra izandakoa zirudien, baina, nolabait, bere edertasuna beste bizitza batean ahaztua utzi zuela zirudien. Hala ere, burua jaitsi eta neskatoarengana begiratu zuenean, berotasun batek bete zituen bere begi urdinak.

Neskak hamahiru urte ingurukoa zirudien, baina txiki samarra zen adin hartarako. Marroi argia zuen ilea, eta aitaren begi urdin berdintsuak zeuzkan. Antzekotasun hori alde batera utzita, ez zuten sendi berekoak ere ematen, aitarena ez bezala, neskaren aurpegia guztiz irakurtezina baitzen. Orbain batek zeharkatzen zion bekokiaren ezkerraldea, eta dendan sartzean jendearen begiradei ez ikusiarena egiteari tematua zirudien.

Gizonak Adamekin minutu batez hitz egin ostean, langileak dendatik zehar gidatu zuen bikotea, bidetik aurkitzen zituzten teklatu desberdinak erakutsi eta haiei buruz azalpen txikiak emanaz. Bazirudien prezioa guztiz berdin zitzaizela; Adam mota eta marka guztietako instrumentuak ari zen erakusten.

Aitak alabari keinuak egin eta nahi izan ezkerro pianoak probatzeko errepikatzen zion arren, bazirudien neskatoa ez zegoela bat berarekin ere oso bete. Nigana heldu zirenean, dendaren ipar-mendebaldean, alabak bi instrumentu probatu izan zituen, eta Adamek zer iruditu zitzaizkion galdetzerakoan irribarre egin eta keinu batez erantzun zuen.

Adamek niri buruz azalpentxoak ematen zuen bitartean (... *Rolanda*, sistema multikanal integratuarekin, diseinu klasikoa...), neska gazteak aurpegiera ikusberarekin aztertu ninduen. Minutu bat geroago, galdetu zuen:

- Proba dezaket?
- Noski baietz -ziurtatu zion Adamek, irribarrez.



Neska eserlekuan jarri eta teklen gainean jarri zituen hatz dardaratiak. Pieza simple samar baten hasiera jo zuen, zalantzati. Irribarre txiki bat agertu zen bere aurpegian, eta aurrera jarraitu zuen. Ez zuen txarto jo, baina batzuetan bazirudien atzamarrek ez ziotela kasurik egiten, ez zutela kolaboratu nahi. Momentu haietan, frustrazio tanta bat agertzen zen neskaren begiradan.

Bukatu zuenean, aulkitik altxatu eta aitarengana bideratu zen:

- Hau nahi dut, aita, mesedez.
- Ziur al zaude, Haize? -galdetu zion aitak, irribarrez, eztiki.
- Bai. Bai, ziur nago -erantzun zuen alabak, buruaz esandakoa errepikatuz.
- Hala bada, hau nahi dugu, mesedez.- eskatu zuen aitak, Adami begira, oraingoan.

Adamen ezpainak tolestu egin ziren irribarre zabal bat eratu arte, eta hirurak dendako salmahaira abiatu ziren.

Hurrengo egunean etorri zen mudantza-kamioia, eta deseraiki egin ninduten bidaia errazteko. Haizeren etxea dendatik ordun laurden batera

zegoela esango nuke. Eraikin beix bateko lehen solairuan aurkitzen zen, pisu handi samarra zen. Haizeren logela oso zabala zen, eta bazirudien bertan zeukatela niretzako lekua eginda. Beraz, izkina batean kokatu ninduten.

Haize ez zen etxera heldu arratsaldera arte. Ni ikusi bezain laster, eserlekuan jarri eta pieza bat jotzen hasi zen. Lehen notak entzun zirenean, aita agertu zen gelako atean. Aurpegia tristuraz bete zuen, tristura eta harrotasuna, aldi berean, alaba semikortxeak jotzerakoan trabatzen zela entzuten zuenean.

Eta horrela jarraitu zuen ordu batean zehar. Haizek pieza bera jotzen zuen behin eta berriz, partituraren beharrik gabe, buruz baitzekien. Baina atzamarrek ez ziotela kasurik egiten zirudien. Berriro agertzen zen frustrazio ukitu hori bere begietan halakoren bat gertatzen zenean, eta, azkenean, ordu luze batez saiatu ostean, gelako mahaian eseri zen. Aita hurbildu egin zitzaion, eta eskolako motxilatik estutxea eta liburuak atera zituen, ohituraz bezala.

Bigarren aulki bat hartu zuen gizonak, eta alabak etxerako lanen erantzunak ematen zituen bitartean, aitak liburuan idazten zituen. Nekienez, ume gehienek bakarrik egiten zituzten etxerako lanak, eta ez zizkieten gurasoek egiten. Baina, kasu honetan, Haizeren aita ez zen alabaren etxerako lanak *egiten* ari, idazten baino ez zen ari. Aitak Haizek zioena bakarrik idazten zuen, ezer esan gabe. Eta nik ez nuen ulertzen zergatik ezin zituen Haizek berak idatzi bere etxerako lanen erantzunak.

Berrogeita bost minutu inguru eman zituzten aita-alabak ariketak egiten: natur zientziak, gaztelania, ingelesa... Eta, bukatu zutenean, aitak musu eman zion Haizeri bekokian, eta gelatik irten zen, atea itxiz.

Haize bakarrik geratu zenean, ohe ondoko mahaitxoko tiradera batetik objektu txiki bat atera zuen. Grisa zen, eta lau bat botoi zituen. Haize bere ohe handian etzan zen, eta objektua bere ondoan utzi zuen, botoi gorria sakatuz. Gero, hitz egiten hasi zen:

27 egun igaro dira istriputik. Orain hiru egun bueltatu nintzen etxera, eta jada kendu dizkidate puntuak eta hesgailuak.

Maria, nire medikuak dio ona izango dela niretzat eguneroko batean idaztea, baina eskuen koordinazioa oraindik txarregia denez eta atzamarrek garunari kasurik egiten ez dietenez, hitzak grabatzeko aholkatu dit. Orain egun batzuk esan zidan, eta momentu hartan tontakeria iruditu zitzaidan arren, hemen nago orain. Esan zidanean, momentu hau inoiz ez nukeela gogoratu nahiko pentsatu nuen. Zertarako nahi nituen nik grabazio guzti hauek? Bada, ez dira egunen batean entzun eta guztia gogoratzeko, orain sentitzen dudana kanporatzeko baizik. Gaur konturatu naiz guzti honetaz. Eta barruan daukadan guztia kanporatzeko daukadan beharraz ere ohartu naiz.

Izan ere, panpina puskatua bezala sentitzen naiz. Edozein gauza egiteko laguntza behar dut. Janaria platerera botatzen saiatzen naizen bakoitzean, kanpora erortzen zait erdia. Ariketak egiteko, irakasleei diktatu behar dizkiet galderen erantzunak, eta gorroto dut beraien aurpegiak ikustea erantzuna ematen dudan bitartean. Gorroto dut. Badakit txarto dagoela. Badakit. Beharbada laguntza handiagoa emango lidakete erantzun zuzena zein den azalduz edo gai osoa berriro errepikatuz, aurpegi mingots horrekin begiratuta baino.

Eta, gero, berriaz, txarto sentitzen naiz hori pentsatzen dudalako. Irakasleak pertsonak dira, ni neu naizen bezala. Arazoak dauzkate, nik dauzkadan bezala. Eta suposatzen dut ahal dutena egiten dutela. Tamalez, ahal dutena ez da beti nahikoa.

Gabi eta Aria asko laguntzen ari dira kontu guzti honekin. Nirekin datoz leku guztietara, eta beti laguntzen naute edozer behar dudanean. Hala ere, errukia ikus dezaket beraien begietan, begiratzen nauten bakoitzean. Konturatzen ez naizela uste dutela imajinatzen dut, baina ez dago ezer horrek baino gehiago haserrarazten nauenik. Ez beraienganako haserrea, nire buruarenganako baizik, ezer egiteko ezgaia naizelako.

Aita da gehien laguntzen ari dena. Etxerako lanak egiten ditu nirekin, eta egunero praktikatzen dugu idazkera. Astelehen, asteazken eta ostiraletan joaten naiz fisioterapeutarengana, eta hark bidaltzen dizkidan ariketak egiten ere laguntzen dit. Bere begietan ere ikus dezaket erruki-tanta hori, baina maitasun olatu batek eramaten du begiratzen nauen bakoitzean. Hori gutxi balitz bezala, beti dago irribarrez nirekin denean. Badakit ni hobeto sentitzeko dela hori.

Badakit ni aurrean ez nagoenean bere alabatxoari gertatutakoagatik, bere alabatxoa puskatuta ikusteagatik, negar egiten duela. Baina horrek bere irriak oraindik gehiago estimatzea egiten du. Asko maite dut aita.

Gaur piano berria ekarri digute etxera. Asko gustatzen zait. Beltza eta handia da, oso apaina. Baina jotzen saiatu naizenean, betikoa bihurtu den arazoarekin egin dut topo: atzamarrek ez zidaten kasurik egiten, eta ez naiz orain hiru urte jo ohi nuen pieza erraz-erraz bat jotzeko ere gai izan. Egin ezin dudan gauza guztietatik, beharbada hau da gehien mintzen nauena. Izan ere, zer pentsatuko du amak pianoa jotzeko gai ez naizela ikusten duenean? Kontzertua maiatzaren 16an da, eta ez dakit pentsatuta neukan kanta jotzeko gai izango naizen. Baina amak badaki, jada, hura jo nahi dudala, eta aldatu dudala entzuten badu, zailegia delako dela pentsatuko du ... ez, “Lo” jo behar dut. Amak kontzertua ikusten duenean nitaz harro egotea lortu behar dut.

Bera nirekin egotea nahiko nuke.

Hurrengo asteetan, ostegun arratsalde eta larunbat goizetan Irati izeneko emakume bat etortzen zen etxera Haizeri pianoa jotzen irakasteko, astelehenetan musika eskolara joaten zen arren. Oso emakume atsegina zen, eta klasea amaitu ostean, Haizek hala nahi izanez gero, beti geratzen zen apur bat gehiago.

Haizek *The Smiths* taldearen “Lo” kanta jotzen ikasi nahi zuen, baina, Iratik zioenez, ikasketak eraikuntza handi bat bezalakoak ziren, eta ezin zinen azken pisutik hasi. Beraz, gogoz kontra, Haize kanta sinpleagoak jotzen hasi behar izan zen, Irati “Lo” jotzeko gai zela zeritzon arte.

Hala ere, Haizek egunero praktikatzen zuen, baita kanta errazak ere. Kantak azkar samar ikasten zituen, eta bere jotzeko modu orokorrean hobekuntza txikiak egiten zituen; ia hautemanekin ziren egunez egun, baina hor zeuden.

Martxoaren azken astea heldu zen, eta Iratik “Lo” kantaren partitura ekarri zion Haizeri asteazkenean.

Tira, Haize. Ezin gogorrago ari zara lan egiten, eta hobekuntza handiak egiten ari zara. Espero dut argi edukitzea oso zaila izango dela pieza hau zuk nahi duzun bezain ongi jotzea. Eta, mesedez, edozein momentutan gehiegi dela uste baduzu, esan eta beste bat ikasiko dugu. Ados?



Haizeren aurpegia argiztatu egin zen Iratiren hitzek esan nahi zutena prozesatu zuenean, eta buruaz baietz egin eta irakaslea besarkatu zuen.

Baina, jotzen hasi zenean, Iratik esandakoa guztiz egia zela konturatu zen. “Lo” oso kantu aurreratua zen, eta Haizeren atzamarrak ez ziren paperean idatzitako erritmoan dantza egiteko gai. Hala ere, neskatoa behin eta berriro saiatu zen. Hurrengo asteetan ene barneko sokek abestu zuten melodia bakarra *The Smiths*-en kanta herrena zen. Eta Haizek kanta jotzen ez zuenean, entzun egiten zuen, eta baita abestu ere:

*Lo egiteko kanta nazazu,
nekatuta nago eta ohera joan nahi dut. Lo egiteko kanta nazazu.
Eta gero utz nazazu bakarrik,
ez zaitetz esnatzen saiatu biharamunean, lo egongo naiz-eta.
Ez zaitetz txar senti
Nire bihotzeko gelaxkan, sakon, Joan egin nahi dut.*

Denbora librea zeukan egunetan, egunerokoa grabatzen jarraitzen zuen. Apirilak 9an honela mintzatu zen:

Atzo bi eskuekin “Lo” kanta jotzen saiatu nintzen. Penagarria izan zen lehen aldian. Nire eskuen koordinaketa tamalgarria da, azken hilabeteetan asko hobetu dudan arren. Bigarrena ere desastre bat izan zen. Hamargarren saiakerara heltzean hobekuntza nabarmena zen.

Lehenegoa Irati eta aita entzun nituen hitz egiten. Iratik modu ikusgarrian hobetu dudala dio: sinestezina dela. Horrek adorea eman dit. Baina, hala ere, ez dakit gai izango naizen kontzertuan biribil jotzeko.

Amaren Europako Tourra gaur gauean hasten da, Londresen. 02 Arenan jotzen du, laugarren aldiz. Oso harro nago beraz. Mundu-mailan musikari ezagunenek bakarrik jotzen dute leku hartan, eta gezurra dirudi amak lau aldiz jo duela bertan. Asko pozten nau amak, beste askok ez bezala, bere ametsa bizitzeko aukera izan duelako.

Hala ere, batzuetan, “normala” izatea gustatuko litzaidakeela aitortu behar dut. Beharbada, horrela, bera eta aita ez lirateke banatuta egongo, eta amak

eta biok denbora gehiago pasatuko genuke elkarrekin. Eta txarto sentitzen naiz; horiek oso pentsamendu neurekoiak dira.

Maiatzaren batean aita Haizeren logelara sartu zen Haize etxerako lanak egiten ari zen bitartean. Apirilaren hasieraz geroztik, Haize bere kabuz hasia zen etxerako lanak egiten, eta aitak momentu hartan bakarrik uztea nahiago izaten zuen, alabak laguntza eskatzen ez bazion, behintzat.

Gizona ohean jarri zen, eta alabari bere ondoan esertzeko eskatu zion, zerbait esan behar ziola eta.

- Haize... sentitzen dut. Benetan, nik... ezin izan dut ezer egin. Asko sentitzen dut...

- Zer da, aita? - gizona hain serio ikusita, Haize kezkatzen hasia zen.

- Bada... ama ezin da kontzertura etorri. Tourra luzatu egin diote sarrera guztiak saldu dituztelako, eta ezin izango da ekainera arte etxera etorri. Sentitzen dut.

Haizeren begietatik tanta lodi-lodiak ari ziren erortzen jada, eta behera begiratzen ari zen, tristura eta etsipena ezkutatzeko alferrikako saiakeran.

- Haize, sentitzen dut, benetan...

- Joan! -oihukatu zuen neskatoak. Esandakoaz ohartu zenean, konpontzen saiatu zen. Barkatu, aita. Bakarrik egon nahi dut, mesedez...

Aitak ondo baino hobeto ulertu zuen alabak esan nahi zuena, eta txintik esan gabe irten zen gelatik.

Haizek, denbora labur batez negar egiten jarraitu ostean, masailak lehortu zituen, eta ohean etzan zen, isiltasunenean, teilatura begira.

Ordu bat geroago, aita logelara sartu zen.

- Aita, ez dut kontzertuan jo nahi -aitortu zuen Haizek.

Aita jotzeko konbentzitzen saiatu zen, baina alferrikakoa zirudien. Ez zitzaion alabaren erabakia aldatzeko modua burura etortzen, indargabe sentitzen zen.

- Begira, Haize; nik ezin zaitut hau egitera behartu. Ez noa behartzera.

Baina pianoa jotzea mundu honetan gehien gustatzen zaizun gauza da. Baliteke amarengatik hasi izana jotzen, baina zure grina da, eta zuretzako egin behar duzu. Bizitzan ezin dituzu gauzak besteak harro egoteko edo pozik egoteko egin. Gauzak zuretzako egin behar dituzu; zu pozik egoteko, zuk gustuko dituzulako eta zu ondo sentitzeko. Izugarrizko lana egin duzu zauden lekuan egoteko, eta jotzen duzunean, zu zeure buruaz harro egotea da lortu behar duzun gauza bakarra, eta ez beste ezer.

Haize isilik geratu zen une luze batez. Gero, bukatu zuen.

- Joko dut. Baina nire pianoarekin egin nahi dut. Eskolakoak gogorragoak egoten dira, eta zaildu egiten didate lana...

Bi asteren buruan, Haize oholtzara igo zen. "Lo" kanta jo zuen; beretzako, eta ez beste inorentzako. Begiak itxi zituen, eta, minutu haietan zehar, instrumentua eta neskatoa bat izan ginela zin egin dezaket.



ipuinak 



Antur
Sari
Dintz
Izarr
Izarr
Isidor
promisi
Antur
Izarr
Isidor
promisi
Dintz
Izarr



Amaia
Intxausti Montorio

Akzesita 15 -16 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Izarrak egun argitan

Neska batekin hizketan zegoen, baita mutil batekin ere. Beno, mutila atzerago zegoen, eta ez zuen ahoa zabaldu ere egiten, baina elkarrizketak erakartzen zuela zirudien. Parke batean zeuden, edo ez, ez zekien seguru, ez zegoelako inguruari begira. Baina berdea zela zin egingo luke, eta zuhaitzen bat ere ikusita zuen, beraz... Beno, elkarrizketa ere ez bazuen ulertzen, nola jakingo zuen bada non demontre zegoen? Baina ametsak batzuetan halakoak dira, ze ametsa zirudien egoera horrek. Zer arraio! Ametsa zen eta.

Begiak arranpalo zituen Oihanek. Kotxean zegoen, atzean, eskumako jarlekuan. Aurpegia besoan etzana, eta hau leihoaren kontra. Beti zihoan autoko leku berean, baina zer egingo zion ba? Bere arreba kapritxosa hutsa zen; berak ezkerra eta ezkerra nahi zuela eta hori bakar-bakarrik, eta ez bazen hori, ezer ere ez! Hala ere, ez zitzaion axola. Leihotik kanpora begiratu zuen, zeru aldera. Horixe bai polita; zeru urdin-urdina eta bertan murgilduta, igerian, hodei zuri potolo eta handiak edo haria bezain finak. Baina..., ai! Atzeko horiek... ilunak eta zein tristeak! Oihanek espero du negarrez ez hastea, baina ez penagatik, ez, ez. Arrazoi berekoiago bat du: zerua garbi ikusi nahi du berarentzako bakarrik.

Ama hizketan ari zitzaiola sumatu zuen, baina ez zekien seguru, aurikularrak jarrita zituen oraindik:

- Bai?

Ez zuen ezer ulertu, beraz, erantzi egin zituen:

- ...unden entzuten? Oihan. Oihan! -oihuka ama.

- Zer?

- Oihan!!

- Zeeeeeeeeeeeeeeer?
- Niri ez hitz egin tonu horretan!! Eta entzun zuri ari natzaizunean!
- Ez zaitut entzun.
- Bai zera!
- Aizu, kaskoekin nenbilen, ez da nire errua.
- Ba ez erabili besteokin egoteko!
- Orduan inoiz ez? Zelan jakingo dut ba nik noiz ari zareten nirekin?
- Mesedez, lasaitasuna -eskatu digu aitak, beti bezala.

Amak apur bat askatu du bolantea estresaren estresaz, baina kontaktuan ditu eskuak oraindik. Gidari ona da, haserre dago, baina gidari ona da.

Ama, bi eskuak bolantean -sartu da Leire, zein astuna.

Leire, utzi ama bakean.

Ez dut hil nahi.

Momentu horretan berriro musikaren munduan murgiltzea pentsatu du Oihanek, baina ezin izan du aurikularra belarrian sartu ere egin.

- Oihan, -aitak- amak zioen hara heltzean uste duela bigarren pisuan dela, baina badaezpada beste umeekin geratzeko sarreran, irakaslearen zain.

- Amm... Sai, zuk nahi duzuna. -dio muturtuta Oihanek.

- Zer duzu, maittie? -aita beti hain gozo.

- Ezer ez.

Isilik geratu dira guztiak momentu batez, baina ez, ezin zuen bakeak iraun; Oihan berriro hasi da:

- Aita, ez dut joan nahi.

Horixe da, Oihanek ez du joan nahi. Lehen ere ez zuen joan nahi, eta ez du inoiz joan nahiko. Baina badoa. Bada, baina aldi berean ez da bere buruaren jabe; joanarazi egiten dute eta. Batzuetan, bere burua behartuta sentitzen duenean, ezetz esateko gogoia etortzen zaio. Eta pentsatzen du, “ez dut egingo, hau nire bizitza da!” Eta bere burua ikusten du buelta ematen eta atzera egiten, baina gero gezurra dela ohartzen da eta imajinazioak batzuetan ez diola errealitateari irabazten. Eta triste jartzen da, ze bera sorkuntza hutsa da, ez da beste ezertarako gai. Bere burua bi aldetan banatuta dago; “egin beharra duzu, zure eginbeharra da” eta “hori ez da nik nahi dudana, ez ezazu egin mesedez”. Gehienetan bigarrenak ere parte hartzen du eta ez da isilik geratzen, baina hori da egiten duen bakarra. Kexa eta kexa, baina akzioak lehen zatia du; beldurra du gertatuko zaionagatik edo.

Zeruan bizitzea gustatuko litzaioke, hodeiekin, zerua da munduan gustukoen duena. Urdina edo ez, beti dago desberdin. Bere logela zeruaren marrazki mordoz forratuta dago. Ez ditu bere adinekoek bezala kantari famatuena edo serietako posterrak, ez; berak zeruaren eta hodeien marrazki piloa ditu. Koloreak oso politak geratzen direla iruditzen zaio akuarelekin, orban koloretsuak dira, zerua ez baita beti kolore berekoa. Hala ez dirudienean ere, milaka tonu ditu.

Baditu beste marrazki batzuk ere, larreak, ibaiak, pertsonak... Baina zerua du gustuko, zerua marraztean horixe bera sentitzen da; beraz zerua da bera.

Iritsi zirenean, amak esan bezala, bere adineko beste neska-mutilekin geratu zen, beno, ez zekizkien beraien adinak. Baina bistaz edo... Aita, ama eta arrebari jada agur esan zien. Nahiz eta azken hau, Leire, bertan geratu.

Bere adin bera zuen norbaiten bila hasi zen disimuluan. Bat edo hiru pertsona ezagutu nahi zituen, bakarrik ez egoteko hiru asteotan zehar, baina ez jende gehiegirekin; inoiz ez zaio talde handietan egotea gustatu. Isilik geratu zen lotsatia zelako, onartu ez arren. Nahiago zuen besteek bera sumatzea eta izena galdetzea. Gauza bat seguru zuen; ez zuen lehen hitza berak egin nahi.

Bat-batean norbait jo zuen bere sorbaldarekin:

- Barkatu -Oihanek larri.
- Begira nondik zoazen -besteak.
- Barkamena eskatu dizut...
- Bai.

Berak ez zion berriz erantzun. Zein desatsegina! Barkamena eskatu zion eta! Oihan arraro sentitzen hasia zen geldi geratu zelako, berak nahi gabe aukeratu balu bezala bere laguna izateko. Eta besteak ere bere ondoan jarraitzen zuen, berari begira, baina ez begietara. Itxaroten bezala. “Batzueta ausarta izan behar da”.

- Kaixo, Oihan dut izena.

Besteak itxaronarazi egin zion, eta bitartean Oihanek begiz jotzeko denbora izan zuen; begi urdin-urdinak, handiak, baina zeharka begira zegoenez txiki-txikiak ematen zutenak. Gainera, kontrastea egiteko, ikatza bezain iluna zuen ilea, eta bekainak estaltzen zizkion begiak ozta-ozta ikus zitezkeen. Lehen begiradan mutila zela esango luke, baina... zenbat eta gehiago begiratu orduan eta nahasiago zegoen: ez zuen ziur ikusten neska edo mutila zen. Izenak argituko zion nahaste-borraste hura:

- Sam.

Kaka zaharra! Izenak are gehiago nahastu zuen. Sam izena izatea ere! Zelako zortea. Sam mutil izena izan zitekeen, serie bateko pertsonaia Sam deitzen zela oroitu zen: baina bere izebak Sam zuen izena. Kaka zaharra!!

- Sam neska, edo Sam mutila? -bota zuen bitan pentsatu gabe, beno, behin ere ez.

Bere aurrekoaren masailek egunsentia ziruditen, arin-arin zuritik gorrira pasatu ziren. Oihanek orri leun batean pintzela pasatzen duenean bezala, akuarela gorritz bustia. Eta kolorez okertu balitz bezala, bera ere gorritu zen lotsaz, baina akuarela ez da lapitza bezalakoa, eta ezin da ezabatu.

- Ez dakit, zuk jakingo duzu! – dio haserre Samek.

- Nik, zera...

Baina ezin izan zuen amaitu. Irakasleak heldu eta bat hizketan hasi zen:

- Kaixo, neska-mutilak. Hurrengo hiru asteetan zuen irakasleak izango gara. Talde txikiagoak egingo ditugu; baditugu aukeratuak, baina gero esango dizkizuegu. Lehenengo joan zuen logeletara eta utzi zuen maleta, mesedez. Eta jarraian jaitsi jangelara. Bertan ezagutuko dugu hobeto elkar. Nahi duzuen logela aukeratu, baina seinaka, aditu? Eta gehiengoaren erosotasunarengatik, neskak eta mutilak gela desberdinetan, mesedez.

Hura kaparrada, laburrago ere esan zezakeen. Egia esan, zena baino luzeagoa egin zitzaion Oihani, Samekin gauzak argitu nahi zituelako. Baina hau joana zen burua biratu zuenerako.

Lehen eguna eta jada bazen zabor hutsa. Ortuko pepino ustelekin hitz egitea baino aspergarriagoa, hain zuzen. Behintzat, lehen eguna zenez, ez zuten gauza handirik egingo, elkarren izenak eta halako txotxolokeriak. Beno, oraingoz Oihanek kontzentrazio guztia bere plateran zuen jarria, kontzentrazioa beharko balu bezala...

Bat-batean Sam ikusi zuen beragandik nahiko hurbil; bandeja eskutan, leku bila. Burua altxatu eta eskuarekin keinu txiki bat egin zion berarengana etortzeko; konturatu gabe egin zuen. Sam, apur bat pentsatu ondoren, bere ondora etorri zen. Eta Oihani irribarre nahiko tontoa atera zitzaion.

- Kaixo.

Oihanek ez zuen zuzenean hitz egin nahi mutila ala neska gaiaz:

- Kaixo, mahaia guretzat bakar-bakarrik dugu. Hau pagotxa, ez?

- Suposatzen dut. Beno, bai. Hobeto horrela...

- Hobeto? Hobeto, zer baino?

- ... ez zait jendez inguratuta egotea gustatzen.



Horrek Oihan pribilegiatu sentiarazi zuen, berarekin esertzea erabaki zuelako.

- Eta... zer gustatzen zaizu?

- Ezer ere ez.

- Tira, zer edo zer bai... begira; niri bideo-jokoetan aritzea gustatzen zait, eta... irakurtzea ez, agure-kontua da. Igerilaria naiz, eta rocka entzuten dut.

- Marraztea.

- Pfff, niri ere bai!

- Ah, bai?

- Niri gehien gustatzen zaidana zerua marraztea da. Akuarelekin, zuri zerekin gustatzen zaizu margotzea?

- Nire etsaien odolarekin.

- Zer?

- Txantxa zen...

Oihani ez zion grazia zipitzik egin.

- Niri ere zerua marraztea gustatzen zait; kolore asko daude eta.

- Baietz! Uste nuen ni nintzela horrela pentsatzen zuen bakarra! Zuk ulertzen nauzu! -ahaztua zuen jada neska edo mutila zen, ez zitzaion axola.

- Bai ba!

- Hain da argia!

- Arazoa da gauzez bakarrik margo dezakedala...

Hitz bat bera gehiago ere ez. Ez ziren zeru beraz hitz egiten ari, ezta? Ezin zuen izan.

- Zer? Gauzez? Baina horrek ez du kolorerik, non dago dibertsioa?

- Nola ez da ba egongo kolorerik! Askok daude, eta oso ederrak!

- Bai zera! Zerez margotzen duzu ba? Dena beltzez!

- Ez!

Horrela eman zuten ia egun osoa; baietz, ezetz. Urdina zela eta ez zela, izarrak zirela eta hodeiak zeudela. Baina haserre baino, entretenituta. Gustura zeuden, bata besteari mokoka. Gauean Oihan sabaia begira ezin loak hartu. Azkenean ez zuten argitu ea gaua edo eguna zen ederrena. “Eguna da, eta ez nau konbentzituko”. Sam-i beste talde batean egokitu zitzaion. Ez zegoen berarekin logelan.

Nagusitxoak zirenez, ez zegoen irakasle bat pasilloan, eta jendea kanpora ateratzen zen besteekin hitz egitera, edo gelaz aldatzen zen tentelarena egiteko. Batzuetan, irakasle bat igotzen zen apur bat begiratzera, baina neska-mutilak tximista bezain bizkor logeletan sartzen ziren. Bera jada bakarrik geratu zen logelan, beste mutilak joanak ziren. Oihani berdin zitzaion, orain garrantzitsuena zerua zen.

- Oihaaaaan... –entzun zuen zurrumurru bat belarrian. Begiak zabaldu eta Sam-enenak aurkitu zituen.

- Joe! Hau sustoa, motel!

- Zatoz nirekin.

- Nora, baina?

Oinetakoak janzteko denbora besterik ez zuen izan. Larrialdietarako eskaileretan behera eraman zuen.

- Nora narozazu?

- Iritsi gara.

Zelai batean zeuden, zentrotik ez oso urruti. Ilun-iluna zegoen dena, antza, Sam-ek bazekien bidea.

- Etzan eta begiratu gora.

Ametsetan bakarrik aurki daitezkeen nahastez egindako zerua ikusi zuen. Akuarela kutxako kolore politenak orri gainean erori, eta txiripaz irudi ikaragarria egin izan balute bezala. Ilunak zeuden, baina



batzuk besteak baina argiago, eta morerantz edo urdin iluneranzkoak. Gainera, izarrak hain ziren argitsuak, ia-ia eskuekin ukitu ahal zituela sentitzen zuen, eta saiatu zen. Besoa altxatu zuen, baina ez, hau pena, ezingo zuen beraiekin jolastu. Hurrengo gauean berriro saiaturko zela pentsatu zuen. Esne bidea izango ote zen? Ez zekien asko konstelazioei buruz. Zein polita, miresgarria; Ametsetan bezala, baina benetan.


Sam-i begiratu zion, hau ere gora begira zegoen etzanda. Arrazoi zuen, zerua gauez miresgarria da. Baina ez zuen hain erraz amore emango, noski...

Sam-en begietan pasioa nabari zen, maitasuna bezalako argi bat edo. Bestela bere begi urdin-urdinetan izarrak murgilduta zeudela esango luke. Izugarria izango litzake, izarrak egun argitan!

Polita iruditu zitzaion, Sam-ek zera zuen, “zera” bat, Oihani ez dakit zer eragiten ziona. Zelan azaldu? Interesgarria zen.

“Arrazoi du, agian gaua politagoa da eguna baino.”

ipuinak 



Antur
Izarr
Isas
Antur
Izarr
Isidor
Antur
Izarr
Isidor



June Azkarate Irigoras

Akzesita 15 -16 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Ametsen pintzela

Kaixo, Xabi: badakizu gaur ere egun berezia izan dela ikastolan, beti bezala, zurekin hitz egiten hasi eta, segituan, ingurukoak barrezka hasi dira. Nire munduan nagoela esaten didate, baina ez dute entzuten zurekin hitz egiten nabilela. Nik behin eta berriz azaltzen diet ni Xabier naizela eta zu Xabi, nire lagunik onena, baina eguzkia dagoenean bakarrik agertzen zarela nire alboan, eta ni naizela zurekin hitz egiteko gai den pertsona bakarra. Hala ere, haiek gorra balira bezala jokatzan dute “Hitz egin!” “Esaguzu!” behin eta berriz errepikatuz, baina ez al dute ulertzen?

Ai... Aitortu beharra daukat ez zatozenez, faltan botatzen zaitudala, baina badakit, zu horrelakoa zara, ni bezain berezia. Berezia al da hitz egokia? Batzuek arraroa naizela diote, beste batzuek aldiz ezberdina, eta nik ez dakit nolakoa naizen. Horrelakoa izan naiz jaio nintzen egunetik, ez dut jendea ulertzen eta beraiek ez dira ni ulertzeko gai.

Amak egunero esaten dit, munduko umerik politena eta azkarrena naizela eta nire irribarrea bere bizitzako energia dela. Jolin! Egia esan, asko gustatzen zait bere ahotik horrelako gauzak entzutea, eta... sekretu bat kontatu behar dizut, bere aurpegia ikustea da irribarre egiteko behar dudana gauza bakarra, gero lurrera begiratu, eta zu ni bezain sentibera zarela ikusten dut.

Horregatik, badakit, gaur daukadan sorpresarekin oso oso pozik jarriko zarela. Begira begira...TXATXAN! Zoragarria ezta? Tenperaz beteriko kutxa hau amatxok inoiz egindako oparirik ederrena da! Orain zergatik oparitu didan galdetuko didazu, gaur ez baita nire urtebetetzea, noski. Ba, begira, kontua da, Mireiak kolore biziekin eta pintzelekin jolastea ondo etorriko zaidala esan diola amari, benetan azkarra! Badakizu Mireia nor den, ezta? Oso ondo konpontzen naiz berarekin, hilean behin ikusten dut eta asko laguntzen dit nire mundua antolatzen... ja, ja, antolatzen? Nire mundua oso antolatuta dago jadanik, baina tira, ilusioa egiten badio...

Eguzkia joan bezain laster, zu ere berarekin joango zara, eta orduan nik neure margoen kutxa estreinatuko dut.

Bakarrik nago, Xabi joan egin da, eta ez dakit noiz itzuliko den. Kutxa zabaldu, pintzela hartu, eta zerbait sentitzen dut, indartsua naiz. Ohe gainean jesarrita nago, eta hortxe daukat, nire aurrean, ate zuri erraldoi bat... ia-ia nahigabe pintzela bertara doa, eta ni, noski, berarekin, orain lagunak gara eta.

ZAS berdea, esperantza ...

ZAS gorria, maitasuna ...

ZAS urdina, zerua ...

ZAS horia, eguzkia ...

ZAS laranja, indarra ...

Hau bai gozamena! Hemen dago nire mundua, nire antolaketa, nire lasaitasuna. Begiak itxi eta bertara noa. Hemen barruan, egia da dena. Hemen barruan, ez naiz ezberdina... sentitzen dut, hitz egiten dut, lagunak ditut, ulertua naiz, onartua, ni. Bat-batean oso erraza bihurtu da guztia, ez dago beldurrik ez eta presarik, ez dut hemendik joan nahi, inoiz ere ez, zer egin dezaket hemen gelditzeko? Pintzela gogor eutsi eta margotzen jarraitu.

ZAS beltza, Xabi...



ZAS grisa, lainoak ...

ZAS zuria, garbitasuna ...

ZAS marroia, ummmm txokolatea ...

ZAS, ZAS, ZAS!

“Ai Ama! Zer da hau Xabier?”

Segituan irten naiz nire mundu idealetik, susto galanta benetan! Begiak zabaldu ditut, eta amatxo ikusi dut, amatxo maitea, aho zabalik eta eskuak buruan, eta nik, amatxo ikusten dudan bakoitzean bezalaxe, irribarretxo bat egin diot. Begira gelditu zait, oso begirada luzea izan da, inoiz baino luzeagoa, eta bat-batean, eskua luzatu, pintzel bat hartu, margotan busti, eta... ZAAAAAAAAAAASSSSSS

Arrosa koloreko marra luze eta eder bat egin du, *enpatia, emozioa...*

Orain bai, orain, perfektua da!

Elkarri begiratu diogu, eta bere aurpegia zoriontasunaren aurpegia da. Amak oso ondo ulertu nau, eta ezer esan gabe hormako apal, poster, argazki, irudi, liburu... guztiak kentzen hasi da. Momentu honetatik aurrera, nire gelak ez du besteen pentsamendu eta antolaketa adieraziko, nirea baizik. Horma zuri erraldoiak ... nire mundua sortzeko aukerak.

Arazo bakarra dago, hormak ezin ditut ikastolara nirekin eraman, nola erakutsi orduan nire mundua ikaskideei? Nola ulertarazi nire ikuspuntua besteei? Nire munduan nagoela dioten guztiek, mundu hori nolakoa den ezagutuko balute... Badakit!

Atean egindakoa, paper zuri batean egiten saiatuko naiz, azken batean, zuriak dira biak, ezta? Ea ba, ZAAAS, ZAAAS, ZAAAS, ZAAAS, beste bat hemendik ZAAAS, hau goitik ZAAAS, eta azkena... ZAAAAS beltza, horrela Xabi ere ezagutuko dute. Bukatuta. Primeran gelditu da. Oso nekatuta nago, ohera joateko ordua da, bihar egun handi bat izango delako susmoa dut.

Goizeko zortziak dira eta gaur irrikan nago ikastolara joateko, hau bai nobedadea! Baina badakit, hemendik aurrera, gauzak ezberdinak

izango direla. Urduri sentitzen naiz, baina nire aurrean dagoen atea begiratzen dudanean, argi geratzen zait, ez dagoela gaizki irten daitekeen ezer ere ez.

Egunero moduan, nire gau-mahiko auto txikiak ilaran jarri eta sukaldera noa, gosaltzera. Esne trago bat edango dut. Sei galleta jango ditut, ez bost ezta lau, sei jango ditut. Esnea amaituko dut eta, katilua buruz behera harraskan utzi ondoren, banoa ikastolara, esku batean nire amatxo maitea eta bestean marrazki zoragarria ditudan bitartean.

Ikastolara heltzerakoan, hiru minutu itxaroten ditut sartu aurretik, baina gaur, zuzenean noa barrura. Besoa luze-luze daramat, eskuan nire marrazkia ondo heldurik andereñoarengana noa. Berak, marrazkia zabaldu eta gelan erakutsi du. Guztiek oso polita dela esan didate, koloretsua eta alaia, baina inork ez du aipatu nik margotutakoa dela.

Ez dituzue ikusten esperantza, maitasuna, zerua, eguzkia, indarra, lainoak, garbitasuna, txokolatea, enpatia, emozioa, eta... nabariena, Xabi? Baina, betiko moduan, erantzunik ez.

Nire buruan kezka, galdera horiek ditudan bitartean, andereñoak marrazkia horman jarriko duela erabaki du.



Gaur goiza ez da hain luzea izan, konturatu gabe, ikasgela nire ikasgela bihurtu da. Badakit nire ikaskideek ez dutela nire mundua ikusten ezta ulertzen ere, baina gutxienez, marrazkia begiratzeko gelditzen diren bakoitzean, biribil erdia marrazten zaie ezpainenetan, eta hori asko gustatzen zait. Gainera, gaizki sentitzen naizenean, begiak marrazkian finkatu ondoren, begiok itxi eta ikasgelatik ihes egiten dut. Andereñoak dio horrela egotea, kaltegarria izan beharrean, onuragarria dela niretzat, eta ez dit ezer esaten ihesaldia luzatzen ez dudan bitartean.

Dena den, oso kezkatuta nago! Margoak bukatzeaz daude, nire mundua ere bukatzeaz al dago?

Baina beti bezala, amatxo arrosa kolorez bustitako pintzelarekin agertu da, eta nire kezka konpondu du, “Lasai Xabier, bihar bertan joango naiz tenpera berriak erostera”. Orain badakit, bere alboan, nire egun guztiak koloretsuak izango direla, eta nire mundua ez dela inoiz amaituko, berriak sortzeko aukera dagoela beti. Lasaiago nago: errealitateak sortzen ez duena, ametsek sortzen dute... Nire pintzeletik sortutako ametsek!

ipuinak 



Anturak
Sariak
Isidoro
Anturak
Isidoro
Sariak
Isidoro
Anturak
Isidoro
Sariak



Nerea
Unzueta Jaio

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean
Ibaizabal Ikastola



Erromeriara Isidororekin

Gaueko 8:56ak, oraindik ez naiz ohitu etxe honetara, nahiz eta nire haurtzaroko bizilekua izan, kanpotar bat bezala sentitzen naiz. Arrotz, eskaileretan gora eta behera noanean, eta ematen dudana pausu bakoitzean. Ama nire ondoan dago, isilik, ordu eta erdi darama isilik, zer pentsatzen egongo ote da?

“Ai, zeinen jatorra den nire Isidoro, noiz gonbidatuko ote nau domeketako erromeriara berekin dantza egitera? Ai, bere ile kizkur marroia eta itsasoa bezalako...”

- Eta zu? Nor zara zu? Ez zaitez ni ukitzen saiatu, e?

- Ama, ni naiz.

- Ama? Ze ama? Nor da hemen zure ama?

- Zeu amatxo, gaueko pastilla hartzeko ordua da.

- Eta zertarako behar dut nik pastilla? Ez ukitzeko esan dizut.

- Lo egiteko pastillak ama, gaueko bederatziak dira jada, eta ohera joan behar duzu, gaur ez duzu lorik egin Isidororekin ametsetan.

- Berdin dit.

- Baina hau hartzen ez baduzu, ezingo zara erromeriara joan, ez duzu Isidoro ikusiko, ez duzu berarekin dantza egingo.

Hori entzutean, begietara begiratu dit eta segituan hartu du pastilla. Ahaztua neukan bere begi kolorea: urdina, itsasoa bera baino urdin sakonagoa, urdin ilun-berdexka kolorekoa.

Eskerrak, lo geratu da azkenean, orain, telebista ikusi ahalko dut. Uste dut, oraintxe bertan, “Ur Handitan” ematen ari direla. Irrikan nago ikusteko, gaurkoan, elizan egon diren sexu abusuei buruz hitz egingo dute. Zer ordu ote da? Ai! gaueko hamarrak, afaltzeko ordua da, jada! Arin egiten badut, afaria ere prestatzeko denbora ematen dit. Baina hozkailua erdi hutsik dago, porru patatak eta jogurta, ez dut denborarik izan solomoa erosteko eta. Bihar falta gabe joan behar naiz supermerkatua.

Lorenaren notak begiratu behar ditut, badakit arazotxoren bat eduki duela matematikekin, baina amamarekin ez daukat berari laguntzeko denborarik, beno, eta etxerako lanak erakusten dizkidanean... formulak eta formulak:

$Az\text{ilindro} = 2TIR(h + R)$, $Akonoa = IIR(g + r)$... niri txino iruditzen zaizkit denak, zer izango ote da letra arraro hori? rr? Agian onena, biontzako onena, laguntzako klaseetara apuntatzea izango da.

Bost hilabete eta bi aste daramatzat, dagoeneko, amaren etxean. Ovidetik etorri nintzen Azpeitiraino, ama zaintzen zuen gizonak, gero eta txarrago zegoela esan zidanean, ziztu bizian maleta egin eta Azpeitian ginen. Lorena haserre bizian jarri zen berria kontatu nionean, zelako bidaiatxo eman zidan... Egunak pasatu zituen bere logelan giltzapetuta, koplaka denbora guztian. Txikitan izugarri gustatzen zitzaion amona bisitatzera etortzea. Oraindik buruan dut, nola ostiralero, gelatik korrika irteten zen, ea Azpeitira gindoazen galdetzen, eta nirekin haserretzen zen, ezetz erantzuten banion. Eta orain amonaren etxera eta haserre berriz, ez dakit nola baina beti aurkitzen du nirekin haserretzeko aitzakiaren bat. Badira bi urte nire aita hil zela. Eta amak, ez du beste ezer buruan Isidoro baino. Isidoro nire aita zen. Uste dut, bizilagunak zirela ezagutu zutela elkar. Umeak zirenean, auzoko elizara batera joaten ziren, eta gaztetan, igandero, herriko erromerian dantza egitera joaten ziren.

Goizeko zazpiak, izartzeko ordua. Atzo berandu arte geratu nintzen, eta gaur oheari itsatsita nagoela iruditzen zait. Animo Miren, ez duzu berandu heldu nahi: Lorenaren azterketa, erosleak etorriko dira etxea behatzen, eta dena txukundu behar duzu. Etxe zaharra da, baina konponketa batzuk eginda, potentziala duela esan didate behatzera etorri diren adituek. Ez dakit nik non ikusten duten indar hori, nik egur eta adreilu pila bat besterik ez dut ikusten. Txiki-txikitatik nire ametsa astronauta izatea zen, gaztetan amarekin ikusten nituen Estatu Batuetako gizonak, beraien traje zuriekin... baina fisika eta ni ez ginen lagun on egin ikastolan, beraz, izardun espazioa etxeko espazioarengatik ordezkatu nuen. Eta orain, etxea saltzeko ordua da, izan ere, amona zaharren egoitza batera bidaltzea egokiena dela uste dut. Nik ahal dudan guztia egin dut, baina badirudi ez dela nahikoa. Bertan, gusturago egongo da, hobeto zainduko dute. Hala ere, zaila izango da bera konbentzitzea, Lorena eta ni batera baino burugogorragoa da, ea zer gezur asmatu dezakedan oraingoan...

- Egun on, maitea, goizeko zazpi eta erdiak dira, esnatzeko ordua laztana.

- Bost minutu gehiago, ama.

- Ez, gora. Gaur azterketa duzu, gogoratzen? Ahaztu gabe, matematikako laguntzako klaseetara apuntatu zaitut, nik ezin dizut esku eman, eta zure notak jaisten hasi dira.

- Zer? Ama, ezin didazu hori egin. Zuk nahi izan duzulako etorri gara hona! Nire lagun denak itxi behar izan ditut Gijonen, zuk nahi izan duzulako. Ezin naiz laguntza klaseetara joan. Gelan denek barre egingo didate. Eskola horietara, ergelak bakarrik joaten dira. Ergela deitzen ari al zara?

- Ez, laztana, baina...

- Ez baina, ez baina ondo! Utzi bakean! Ez daukazu inoiz niretzako denbora. Badirudi amama bakarrik bizi dela etxe honetan.

Danba! Eta kolpe batez, atea itxi du. Ateari begira geratu naiz. Inoiz ez dit hori esan. Zaplazteko bat bezalakoa izan da ate kolpe hori. Eta

zaplaztekoak niri jo dit. Hemen, bihotzean. Danba! Eskua zabal-zabalik eta gogor emango balidate bezala sentitu dut, atzamar luze eta indartsuekin. Malko bat jausi zait, begitik hasi eta nire masailetik behera joan da txirristan. Bat, bakarra, zilar kolorekoa, ezustekoz eta minez betetako. Nire Lorena hazten ari da, eta amatxorengandik gero eta urrunago sentitzen dut, itsasontzi batean joango balitz bezala, astiro agur esaten, eta itsaso zabalean galtzen.

- Lorena ezin zara zure gelan geratu egun osoa, gaur euskarako azterketa daukazu, arin joan behar zara. Erreparatu ahal dituzu ahalerako aditzak?

Isiltasuna, ez da ezer entzuten. Sukaldera joan naiz, esnea berotu, minutu bat nahikoa izango da. Ogia, tostadak egiteko, eta gurina, bihar margarina erosten joan behar naiz, eta marmelada. Zein goxoa. Momentuz, solomoa eta margarina... Erosketak egiteko zerrenda bat egin behar dut, bestela, nolakoa naizen jakinda, bi orduren buruan, zer erosi behar dudan ahaztuko dut, eta joan beharra daukadala ere bai.

- Ama, baina zer egiten duzu jantzita?-Ama, igandeetako soineko batekin azaldu da sukaldean.

- Eta zu? Nor zara zu? Zer egiten duzu nire etxean?

- Ama, ni naiz.

- Ama? Ze ama? Nor da hemen zure ama?

- Zeu amatxo, nora zoaz horren goiz?

- Loradendara. Ospa nire etxetik!

Goizero izaten dugu hitzaldi berbera: nor naizen ni, zer egiten dudan hemen eta bere etxetik joateko. Ez dakit ideia ona izan den hona etortzea, ahaztu egiten zaio Lorena eta ni hemen bizi garela, eta susto galanta hartzen du goizero.

- Hemen bizi naiz, gogoratzen? Zergatik zoaz loradendara?

- Zu hemen bizi? Beno, Isidororen urtebetetzea da, larrosa gorriak eroatera joan behar naiz. Gorria bere kolore gustukoena da, baita nirea



ere. Gorria, sugarrak sortzen duten gorria, maitasunaren eta pasioaren gorri kolorea. Soineko gorria prest dut. Aurreko astean, kolore gorria nire azal zuriarekin eta masail larrosa-gorriekin bat doala esan zidan. Egia esan, gorri-gorri jarri nintzen bera ikustean... Zein adeitsua izan den beti Isidoro.

- Ezin dut inola ere loradendara bakarrik joaten utzi, galdu egin daiteke, edo okerrago, galdu egin daiteke eta ezezagun batekin joan. Ez, ez, inolaz ere ez!

Aititik, sutan, gorri-gorri, jarriko da ezetza entzutean. Eta modu batera edo bestera joatea lortuko du. Nirekin azkenean beti lortzen du nahi duena. Zerbait asmatu behar dut, eta sinesgarria izan behar da, inoiz ez naiz ona izan gezurrak asmatzen.

Arrazoi duzu, gorria beti izan da zure kolorea. Nik ere krabelin pare bat erosi behar ditut, etxeko atarian jartzeko. Dendara lagunduko dizut.

Poltsa hartu. Giltzak barruan ote daude? Bai, ondo. Txaketa hartu eta dena prest joateko.

Lorena, maitea, amamarekin noa beheko loradendara. Ez dugu denbora asko emango, baina badaezpada ere, gogoratu 7:40ean etxetik kanpo egon behar duzula goiz iristeko, ados?

Isiltasuna, itxaroten geratu naiz pare bat minutu, baina ez dut erantzunik jaso. Batzuetan isiltasunak, hitzek baino min gehiago egin dezakete. Beno ez diot garrantzi handirik eman behar. Pasatuko zaio, edo hori pentsarazi nahi diot behintzat neure buruari.

Amarekin etxetik irteteaz azken errepassoa egin dut, dena hartu dudana egiaztatzeko: giltzak? bai; dirua? bai; Telefonoa? Telefonoa? Ai ene! Ez dut zorro barruan aurkitzen, nora ote noa ni telefonorik gabe! Txikia nintzenean, korrika irteten ginen etxetik, ez genuen ardurarik, eta are gutxiago telefonorik. Amak non nengoen jakin nahi bazuen, leihora irten besterik ez zuen, eta etxe azpiko plazatik urruntzen baginen, gaueko 8:30ean etxeko mahaia afarirako prest zegoen beti.

Orain konektatuta gaude beti, batzuetan Lorenari mundua gora begiratzuz ikusten dela gogoratu behar diot.

Korrika batean etxean sartu eta egongelara joan naiz lehenengo. Mahaitxoan begiratu, eta ez, hor ez dago. Sukaldean, agian. Sukaldeko mahaian ere ez dago, logelan orduan. Bertara sartu, gaueko mahaitxoa eta tiradera guztiak zabaldu ditut, baina hutsik, kaka zaharra! Non demontre egongo ote da? Beno, ez daukat bilatzen jarraitzeko astirik, ama itxaroten egongo da.

Ama! Ama! Pilar!

Nora joango zen oraingoan? Bost minutu baino ez naiz desagertu eta dagoeneko ez dago hemen. Ezin izan du oso urruti joan bere artritisarekin... Orain dela pare bat urte kexatzen hasi zen, ezin zela lehen bezain bizi mugitu, kosta egiten zitzaiola sofatik altxatzea... Beraz, medikuarengana joan ginen, eta *osteoarthritis* zuela esan zigun, “edadearen kontuak” alegia. Espero dut igogailua hartu izana, eskaileratan ez da oso ondo konpontzen eta.

Zerbait daukat poltsikoan, ai telefonoa da! Amak esaten duen bezala: “txarria lepoan, eta txarri bille.”

Eskaileretan behera: bat, bi, hiru, ... , lehenengo solairua: bat, bi, hiru, ...

Ama! Ama! Hemen, ama!

Telefonoa? Non utzi dut telefonia? Ezkerra? Eskuina? Amak esango lukeen antzera: “vísteme despacio que tengo prisa.” Baina orain ez daukat lasaitzeko denborarik..

- 112, Bai? kaixo. Anbulantzia bat behar dut. Bai. Nire ama. Eskaileratik. Ez, ez du erantzuten, arin. Bai. Zubi zahar kalea, 24. Arin, mesedez. Eskerrik asko. Lasai ama, laster etorriko da medikua eta Isidororekin dantza egitera joan ahalko zara gero.

- Isidoro?

- Ama! Bai amatxo, lasai. Lasai egon, nik erosiko ditut arrosak, eta gero erromeriara eramango dituzu. Lasai dena ondo irtengo da, lasai -



hori behar dut nik, lasaitasuna-, laster etorriko dira ambulantiakoak.
Lasai Miren, lasai, dena ongi amaituko da.

- Bai, zurekin?

- Ama, norekin? Zer? Anbulantzia bidean da, lasai.

- Eskerrik asko

- Ama, eskerrik asko, zer? Beldurtzen hasi naiz -norbaitekin ari da hizketan? Eskuina? Ezkerra? Hemen ez dago inor-. Amatxo ez itxi begiak. Begira, hemen dator laguntza.

Niinooo niinooo...

- Hemen! Eskerrik asko. Bai, hona. Ama, ama! Hemen! Ni naiz, Miren! Amatxo!

- Oraintxe noa Isidoro.

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Konpromisoz

Primum vivere, deinde philosophari

Alokatu zuen etxeke sarrailan giltza sartzearekin bat jabetu zen prezioaren zergatiaz. Luzaroan maizterrik izan ez duten etxeen ohiko usaina heldu zitzaion sudurrera; hautsa eta hezetasuna. Pertsianak igo eta logelak egurasten utzi zituen, tiradera eta armairu guztietan kuxkuxean aritzeko hurrena. Bere ohituretariko bat.

Etxebizitza altzari merkeekin jantzirik zegoen. Agerikoa zen funtzionalitatea hobetsi zutela beste edozein irizpideren gainetik. Josebari berdin zitzaion, erraz konformatzen baita zeinahi delarik ere egokitzen zaiona. Emaztea ez ordea. Berak ez zukeen inondik ere ametituko jabeen inbertsio eza, turistekin dirua azkar irabazteko taktika. Ezta mesanotxe gaineko hautsa, telebistaren urrutiko aginteak pilarik ez izatea edota dutxako isurbidearen inguruan margotzen zen kobre-koloreko arrastoa. Utzikeria hura, aldiz, eramangarria zitzaion Josebari.

Kristina eta seme-alabak urrun zituen. Hasieran berarekin etortzekoak ziren; lan bidaia zena aspaldiko partez asteburua familian pasatzeko baliatuko zutela sinetsirik zegoen Joseba. Alta, seme-alabak izan ziren lehenak aitzakiak jartzen; emaztea hurrengo, aita gaixorik zuela-eta. Bakoitza berera, finean, azkenengo boladan bezala. Isiltasun lubaki geroz

eta handiagoa ereiten lauron artean. Egun batzuetan Josebak bere buruari galdetzen zion nor egon zitekeen momentu hartan etxean. Eta azkar etxeratzeko presatu beharrean fakultateko bulegoan berandurarte geratzen zen lanean, azterketak zuzentzen edo, sinpleki, irakurtzen.

Irrati-kaseteko musika klasikoa lagun, autoko bakardadean probintzietako unibertsitate hartarainoko 600 kilometroak maldan gorakoak izan ziren. Esan beharreko guztia liburuetan zegoen jada, ez zuen ulertzen bera bertaratzearen garrantzia, orobat jardunaldien ospakizuna, ez bazen unibertsitateak bere jarduna justifikatu edo promozionatzeko aitzakia.

Bere obra, gainera, ez zen inolaz ere berritzailea, zeharo akademizista baizik. Gai baten inguruan filosofo askoren pentsamendua laburbildu, gerora izandako hainbat interpretazio erkatu eta ikerketa lan hura guztia liburuetan islatu, horratx bere lana. Oso zuen barneraturik metodoa, objektiboa izaten saiatzen zen kosta ahala kosta, ideiak egokiro testuinguratuz. Hala, irakurlea alde zurratik norabide jakin batean prestatzeko arriskua obsesiboki saihesteko jarrera erakutsi zuen urtetan. Ñabardura oro esplizitaturik, berari buruzko ahalik eta gutxien egotea espero zuen idazten zituen salmenta eskaseko kontsulta liburu haietan, bere izana eta ekarpena azalean agertzen zen izenera mugatuz. Horregatik iruditzen zitzaizkion irrigarriak ikasle gutxi batzuek noizbait liburuak sinatu zitzan egindako eskariak. Gogoz kontra, azal-hegalean zerbait izkiriartzen zuen halakoetan, konpromisoz, zakar ez suertatzeko, ikasleekiko sentitzen zuen hurbiltasun falta nolabait lausotzeko.

Enegarren aldiz hausnartu zuen horren inguruan, hitzaldiak ematearen hutsaltasunaz edota katedradunen arteko lehia eta elkar ikusiezin isilaz, eta hala eta guztiz ere ezin gonbidapena errefusatu. Berriz ere lekutan, etxetik urrun, hirugarren mailako unibertsitate batean hamaika aldiz esandakoa errepikatzeko bezperan. Hasieran bizigarria zen plana denborarekin nekeza bilakatua zitzaien. Daborduko ez zuen hiritxoa arakatzeko ibileran ateratzeko beharrik, katedralak, liburu-dendek edo tabernek eskaini ziezaioketenaren aiduru. Ostiral iluntzean, beraz, nahiago izan zuen supermerkatu bat bilatu, botila bete ardo eta mokaduren bat

erosi eta itzuleran sofán bota, afaldu bitartean etxetik ekarritako nobela beltza irakurtzera.

Biharamunean, bizarra egin eta dutxa hartu ostean unibertsitaterantz bideratu zen oinez. Medikuaeren aholkua zuen hura, ariketa apur bat, kolesterola eta pisua zaintze aldera. Aurreikusi bezala, hitzaldia hasi baino ordu laurden lehenago azaldu zen bertara, antolatzaileak eta gainontzeko hizlariak agurtzeko tarte eskasaz. Bigarren hitz egitea suertatu zitzaion, “Jainkoa Akinoko Tomas, Kant eta Nietzscheren pentsamenduan” goiburua zuen mintzaldiaren korpus teorikoa bere esku geratuz.

Gogo barik hasi zen hizketan, nagi. Paraninfoa, aulki deserosoz beteriko areto zaharra, erdi hutsik zegoen eta bertaratutakoak, ikasle nahiz irakasle, konpromisoz zeuden han. Ideiak aletuz joan zen, aseptikoki erabat, baina pixkanaka-pixkanaka bere kontakizunak bizitasuna irabazi zuen, entzuleen asperdura ekidin aldera ñabardurak txertatu eta mugak apurtu heinean.

“Erdi Aroko eskolastikoeak *ad hoc* pentsatu zuten, pentsamendu oro Jainkoa ardatz eraikiz. Descartesek etena irudikatuko zuen, halaxe pasa baita Filosofiaren Historiara, iraultzailatzat, aurreiritziak gaingitu nahirik, nahiz eta ondorio berdinetara heldu zen, ustez arrazionalki. Arrazoia eta fedea binomioan argi dago, beraz, nor suertatzen den galtzaile. Kantek ere Jainkoa existitzearen itzaropena behar etiko bilakatzen du, Nietzscheren ustez erabateko zoritxarra, gizakiak eraikitako lokamutsa eta uztarria, izango dena”.

Esleitutako denbora agortzear zuela bota zituen hitzok, laburpen gisara-edo. Jarraian, arduradun batek hitza hartu zuen, galderen txanda irekiz. Isiltasun deserosoaren ondoren irakasle batzuek protokoloazko itaunak plazaratu zituzten, hizlariak atezuan ez jartzeko moduan betiere. Erantzunak ere ildo beretik joan ziren, zehaztasun gutxirekin apainduak. Saioa itxiko zela zirudienean, txima luzedun gazte batek eskua altxatu eta hitza hartu zuen:

“Jainkoaren heriotzaz geroztik edozer dagoela baimenduta adierazi zuen Dostoievskik bere idazlanetako batean. Zizekek, hain justu,

kontrako hausnarketa egiten du. Hau da, Jainkoarekin dena zilegi dela, edozein bekatu edo ekintza barkatua eta berrerosia izango baita. Nik, posible balitz, zuen iritzia, hizlariona, zein den jakin nahiko nuke”.

Josebak bere burua irudikatu zuen ikaslearen tokian, hiru hamarkada lehenago, erakargarri eta bizigarri begitantzen zitzaizkion autoreak hautseztatutako edizioetan deskubritu zituen garaian. Periferia atzean utzi eta edozein metropolira bizitzen joateko grina bor-bor zueneko denbora atzeman zuen ikaslearengan. Baita asegaiztasuna ere, galderari labur, apenas sakondu gabe, enigmaren bidetik erantzun zionean. Bizitzan badirelako erantzunik gabeko itaunak.

Akaso paternalistegi jokatu zuen Josebak baina, aldi berean, gazteen euforia baretzea beharrezkoa iruditzen zitzaion. Han bildutako inork ez zion gizontxo hari egiarik aitortuko; hots, bide beretik jarraituz gero, unibertsitateak ezarian irentsiko zuela, bizimodu eroso, lasai eta gehienetan aspergarrira bultzatuz, batzar eta plan akademiko berrien artetik; jakintza bide batetik eta bizitza bestetik. Talentu apurrik bazuen lau horma haietatik ez zen irtengo, hain daude unibertsitateak mimesi eta erreprodukzioan zentratuak. “Ihes egizu, joan zaitez atzerrira. Sortu, bizi, libre izan”, oihukatu nahi zion, baina hori ere lekuz kanpo zegokeen.

Oholtzatik jaisterakoan ohiko taldetxoak sortu ziren. Kideren bat agurtu ondoren, aterantz abiatu zen azkar, elkarrizketa hutsalak ekidin eta bazkaltzeko asmoz. Zer jan ez dakien guztietan jatetxe txinatarretara jotzeko ohitura du, Kristinarekin ezinezkoa duelako haietara egitea. Asmo hori buruan abiatu zen alboko ate batetik, atzetik bere izena oihukatu zuen emakume baten ahotsak bere ibilera eten zuen arte. “Marta naiz”, aurkeztu zuen bere burua parera heldzerakoan, “telefonoz hitz egin genuen”. Jardunaldien arduraduna Josebaren adinaren bueltan ibiliko zen, nahiz eta ezingo lukeen zehaztu goitik edo behetik, hain dorpea izaki gisako kalkuluatarako. Lehenengo begi kolpetik emakumeak bazuen erakargarria suertatzen zen zer edo zer, telefonoz igarri ezina dena, bisaia eta gorputz jakin bati ahotsa lotzea ariketa alferrikakoa den heinean. Hariaren bestaldetik Josebak ezinezkoa zuen ile motzeko emakume

beltzaran hura irudikatzea, zer esanik ez irribarre adeitsua, nikotina hatsa. Eta gainera, ezin horrela ere norbaiten izaera zehaztasunez zedarritu.

Espero bezala, eskerrak eta laudorioak irten ziren Martaren ahotik, “nire ikasleei zure eskuliburuak irakur ditzaten errepikatzen diet uneoro”, hizketaldia luzatuz joan zen eta, azkenik, elkarrekin bazkaltzeko gonbitea luzatu zion Martak berak, ezohikoa kasu hauetan, unibertsitateak ordaindutako oturuntza jendetsuak arau.

Bakarrik bazkaldu zuten, hortaz, gainontzeko hizlari eta kideen begiradatik salbu. Ardoz lagunduriko asteburuko menua, baita kafea eta kopa eta bazkalosteko bizpahiru zigarreta hiriko alde zaharreko terraza batean, udaberriko lehen eguzki izpien pean. Hizketa lanean zentratu zuten, edo filosofian, berdina dena. Martak etika eta antropologia eskolak ematen zituen, bazuen zer edo zer idazteko asmorik, tesia burutu ostean ezer gutxi aurreratu baitzuen urtetan, hain zegoen lanpeturik klaseak prestatzearekin eta dekanotzak zekarkion lan eskergarekin. Saiakera baten bizkarrezurra bide zuen buruan, hura gorpuzteko denbora eta erreferentziak sumatzen zituen faltan aitzitik. Aholkua ere eskatu zion Josebari, hortik hainbat pentsalariri buruzko iritzi trukaketara igaro ziren eta azkenik eztabaida argira. Alkoholaren efektuagatik ausaz, lehor moztu zuen Josebak eztabaida, intelektualek ohikoa duten hurkoa gutxiesteko nagusitasun moralaz. “Ez, erabat okerturik zaude”; hitzak ezpainetatik irristatu eta berehala jabetu zen hanka-sartzeaz. Ez zuen ulertzen zergatik berotzen zen gisako eztabaidekin, inora ez zihoazen ariketa filosofiko ezdeusak baino ez zirenean. “Sentitzen dut; hotzagoa izan beharko nintzateke”, desenkusatu zen. “Ez du axola”, ihardetsi zion Martak.

Hitzen gazi-gozoa arintzeko-edo tabernaz aldatu eta bigarren tragoa eskatu zuten. Hura lasaigarria izan bazen, hirugarrenarekin hurkoa beste begi batzuekin ikusten hasi ziren; edo agian biek ala biek lehenengo momentutik izandako bulkadak eramanda, zaila da zehaztea. Iluntzen hasi baino zertxobait lehenago, nerabeek tabernak eta karririk oihuka hartu aitzin, Martaren fereka ausart batek bien ezpainak trakeski lotu zituen. Josebak sakon hartzen zuen arnasa; ezaguna zitzaion Martaren lurrin gozoa, ezin ordea usainari aurpegirik jarri. Duda-mudatan,



ezagutzen zituen emakumeen usainak buruan igaro zituen Martaren etxerainoko hamar bat minutuak.

Sabai altua, pareten zuritiesuna, XX. mende hasierako artista abangoardisten lanen erreproduzioak, telebista txikia eta egongelako pianoa. Ezker-eskuin zebilen begira Joseba. Martak uxatu zion liburutegiko apalen artean galtzeko gogoa, eskutik helduz eta logelara zuzenduz.

Ohe zabalean urrun zituzten zurruntasun akademikoak. Josebari mingaina irristatzen zitzaion Martaren ezpain artetik, eskuekin behinola tenk izandako ipurmasailak irmo oratzen zizkion, azaleko txoko ezkutuenetan bilatuz plazer iturri berriak. Luzaroan horrela egon zitekeela irudikatu zuen, Martak bere hankartera zuzenean jo eta berarengana gidatu izan ez balu. Orduan lausotu zitzaion magia, erosaren indarra, hortik aurrerakoa elkartruke mekanikora murriztuz. Sartu-irten, makina hidrauliko batek egingo lukeen moduan, konpromisoz kasik.

Igande goizeko hodeiak alokatu zuen etxeko ohetik ikusi zituen Josebak, gauerdia pasatxo zenean Martarekin desenkusatu eta taxia eskatu baitzuen berera joateko. Indartsuago altxatu zen, buruan askatasuna eta ausikia jira-bira motelean arituagatik. Edo, Kanten hitzetan esateko, “lotan bizitza edertasuna dela amestu nuen; esnatu, eta betebeharra dela ohartu nintzen”. Hitzok kasualitatez gosarian berrirakurri ahal izan zituen, erositako dozena erdi egunkari eta zegozkien gehigarrien lerroen artean, lekuz kanpo erabat. Iganderoko errutina zuen, kanpoan gosalduek eta goiza kafesne, croissant eta prentsa artean eman. Aliritzira irakurtzen zuen, albisteak egunkari desberdinen artean konparatuz. Denek zuten antzeko tratamendua, kezkarria zitzaiona prentsa askatasunaren nahiz irakurleen osasunarentzat. Iritzi zutabeak, aldiz, nekagarritzat zituen; estiloaren arinkeria eta efektismoa gailentzen zen kazetari gehienengan, guztiek jaurtitzen baitzituzten azaleko iritzi ustez zentzudunak, betiere gatzgabeak. Hortaz, aurreko igandetan bezala, gehigarrietako erreportajeetan bilatu zuen bestelako errealitaterik: hamarkadetako ustelkeria Mallorcako gau bizitzan; kurduak alkohol kontrabandoan

Iraneko mugan; heroinaren gorakada Estatu Batuetako eskualde deprimitu batean; tenislari bati egindako elkarrizketa.

Kafetegian ordu t´erdi inguru egin ondoren, etxerako bidea hartzea deliberatu zuen. Asperdurak berriz erasanda, autoa martxan jartzearekin bat ahalik eta beranduen etxeratzeko asmakeria piztu zitzaion barrenean. Mantso abiatu zen, hartara gainontzeko gidarien demaseko abiadura nabarmenagoa suertatuz. “Nora ote doaz”, galdegiten zion bere buruari Josebak. “Eta zergatik? Nor dute zain?”. “Akaso ezerezak sortzen duen bertigoari erantzuteko modua dute”, hausnartu zuen, burutazioa segituan zalantzan jartzeko. “Jendea sinpleagoa da: autoek azkar joateko aukera dutelako joango dira ziztu bizian”, ondorioztatu zuen gerora, Ockham buruan.




Eta horrela, auto-estratatik geldo gidatuz, ideia batetik bestera aiko-
maiko, hitzaldian galdera luzatu zion gaztea etorri zitzaion gomutara.
Oroitzapenak hausnarketarako bide berriak ireki zizkion. Alegia: zer
pentsatu beharra zuen, nola jokatu, fedea aspaldi galdua zuen
norbanakoak? Bolanteari estu oratuta, errepidetik begirada kendu barik,
jarraitu zuen gidatzen eta hausnartzen, ezein ondoriotara heltzeko ezgai.
Bidaiaren erdia baino gehiago eginda zuenerako hasi ziren lehenengo euri
tantak erortzen, lodi lehenik, erauntsiz ondoren. Errepidean aurrera
segitu zuen Josebak, arestian bezala, haizetako-garbigailuari automatikoki
eraginez, bidean markaturiko lerro zuriei jarraiki.

olertkiak



Handwritten text in blue ink, including the words "Tza", "ad", "ham urt", "ar", "le", "be", "na", "ei", "da", "Kolorerik", "epe", "n", "a".



Unai de Miguel Solozabal

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean
Landako Eskola

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Bizitza

Sei urteko ume bat naiz:
Nire lagunarekin
jolasten nago parkean
eta galdetzen dit
«Zuk ba al dakizu zer den bizitza?»

Berrogei urte geroago:
Nire seme batek galdetzen dit:
«Zer da bizitza, aita?»
«Bizitza, seme, lan egitea da
eta dena ondo egitea»

Berrogei urte geroago:
Laurogei urte ditut
eta orain badakit
zer den bizitza:
Bizitza dena da,
horregatik bizitzako
segundo guztiak disfrutatu
behar ditugu,
pozik egonik,
familia eta lagunekin.



Olaia
Milikua Garcia de Cortazar

Irabazlea 15 -16 urte bitarteko sailean
San Antonio Ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Badira hamar urte

Badira hamar urte
mediku hark gaitza diagnostikatu zidala
infernua hasi zela
guzti-guztia ahaztu nuela

Badira hamar urte
zoriontasuna amaitu
ta amets gaiztoa hasi
zitzaidala

Badira hamar urte
egunerokoak idazten hasi nintzela
irakurriz nire bizitza osoarekin
gogoratzeko

Badira hamar urte
ilobak ea maite dudan galdetu zidala
bere izena ez nuelako
gogoratzen

Badira hamar urte
ilobari malko artean erantzun niola:
zoritxarrez ez ditut gogoan
zure izena eta izana
baina zure begiak bai laztana

Badira hamar urte
egunero makal esnatzen hasi nintzela
azkenengoz irri egin nuela
neure burua maitatzen ez dudala
Badira hamar urte
ingurukoen beroa inoiz baino gehiago
jasotzen hasi nintzela
seme-alabak egunero bisitan etortzen hasi zirela
lagunek nigatik edozer egiten dutela

Badira hamar urte
hil eta aldi berean berpiztu
nintzela

olertkiak



Handwritten text in blue ink, including the words "Tza", "Urdi", "Kolorerik", "epel", "ad", "ham", "urte", "ar", "le", "be", "ia", "da", "K", "epel", "a".

Xixili

Bengoetxea Llona

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Urdina ei da kolorerik epelena

I

Partitu dute arrantzaleek urrutira
 haiekin alde egin dute kalatxoriek
 kontraleihoetan pitzadurak agerian
 geruza azul ia bilutsiak
 paisaia ezdeusa da portuan.

Emakumeak geratu dira kaian,
 berbetan eta barrez
 jostorratzak eta eskuak ahituta
 bisiguen haustutako sareak ehuntzen
 neguaren arrakalak elkartzen.

Itxasoko gatzak
 gorputzak lehituta
 mantentzen dituen horrek
 urratu dizkie masailak
 urratu gorritu arte eta
 intsusa olioiz igurtziko dituzte
 gauero erredurak
 ez dadin betiko izan jagotearena.

II

Argitu du Chefchaouenen
 jantzi ditu azkenean
 zeta gorrizko babutxak

katu lirainak
 datilondoen itzaletan
 eskaileretan gora
 meskitaren ondotik igaro da

urdin koloreko hirian
 koloretako txilabak eta alfonbrak
 leihoetan zintzilik

zilantro kurkuma azafran
eta kominozko lainoan
bildotsak eta Khubz ogia
zaporeak eta usainak
sekula ahaztu ezin izango dituenak

ilundu du Chefchaouenen
erantzi ditu azkenean
zeta gorrizko babutxak.


III
Behin etzun nuen
balea urdinak baduela mokorrean
kolokan hezur bat
aspaldi gizaki izan zenaren ikur

noizbait ihes egin nahi balu
beste itxasoetan barneratu
baina
kasualitatez edo
itxasotan iada ez da balearik





Urdina
Kolorerik
epe
Tza
ad
ham
urte
ar
le
be
da
K
n
a



Mikel
Esteban Urtiaga

Irabazlea 18 urtetik gorakoena sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea



Egur begiak

Ertzetik ertzerainoko bidegurutzean galdua,
 nor zaren ere ez dakizu,
 zergatik begiratzen ote dizute horrenbeste?
 nolatan izan liteke zure sortzea gaur albiste?

Oraindik biluzik dabilen ezjakina baino ez zara,
 eta nik,
 zure barreneko korapiloak deslotzen ematen ditut arratsaldeak,
 Noraezean gurutzatzen zaizkigun formak asmatzen,
 Erlojuaren orratzen artean galtzen,
 Pariseko jostunik ospetsuena banintz bezala,
 zure izana hariztatzen.

Elkarrekin,
 perfekzioetik urruntzen gara,
 artistaren eternitate gorenetatik ihesi,
 lagun, zuk jakingo duzu eta, esadazu,
 zer litzateke minik sortzen ez duen kolpea?
 kolpeka sortzen dugu,
 kolpe bakoitzeko zu.

Ezkutuan gordea duzun bihotzak marrazten zaitu,
 eta nik ziztadez josi arren,
 zure arima bion artean landuko dugu.
 Zer izan nahi duzu nagusi zarenean?
 galdetzen ziguten eskoletan,
 oraindik aitona-amonen besoetatik helduta etxeratzen ginenean,
 baina guk, guk horretarako erantzunik ez.

Mailuka eta egurraren arteko borrokan dantzariak gara,
 isiltasunaren koordenadak bilatu eta koloreztatzen,
 geroan izan nahi duzuna aukeratzen,
 zure sentimenduen itsasoan sakontzen.

Nik, kolpe bakoitzeko hitz bat eskainiko dizut,
hitzetan sortzen den elkarrizketan,
hartu-emanean.

Zure izenak oraindik ez dio axola eta ez izan presarik,
zuri ere gobernuren batek oparituko dizu txartel espezialen bat,
non zure izen abizenak definituko diren,
eta lasai,
Olinpoko sarreran poliziaren batek galdetuko dizu azken urteetan
zertan aritu zaren.

Segundo oro laztantzen jarraitu nahi zaitut,
nire eskuek zure azalaren beharra dutelako agian,
kresalak burdina usteltzeko nahia duen bezala,
edota haize eta urak arrokari forma emateko beharra duten moduan.



Nik, badiotsut,
zure presentziaz ohartu gabe bizitzea,
benetan zilegi zaidala.

Bihar, maite zaituen artisauaren mezuak munduan zehar garraiatuko dituzu,
negu hotzeko plazetan lekua hartu eta alboetara begiratur,
ametsez lepo diren emakume eta gizon horien esku zahar eta
zimurtuetara,
eta berehala jakingo duzu zer eta nor zaren.

Betirako forma eta gorputzik ez dugu nahi munduan,
zure orbainetan libre imajinatuko zara,
eta ez zara gehiagotan ezkutatuko ganbaran,
zentsuraren banderan,
bihurtuko zara artelan.
Jainkoren baten esanak traizionatu dituenaren traidorearen gisan,
pasioz,
askatasunez jantzia.

Kolpe bakoitzean,
mila keinu eta taupada airean,
sekula itzaliko ez den herrian,
ertzak ugari,
baina itzalik ez.

Maite ditugun horien beso eta magalean garena bihurtu ginelako,
“iraun dezagun denboran!”,
ozen egin zuen aldarri artisaauak,
eta elkarrekin besarkatuta gogoratuko ditugu,
baserriko ganbara iluneko gauak.

bertsoak



B
a
r
a
c
k
a
b
e
r
t
s
o
a
k
A
r
i
m
a
g
a
k
o
k
o
r
l
i
z
e
e
i



Aitor
Forjan Gonzalez

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean
Nevers Ikastetxea



Baratzeko bertsoak

Sarritan egin dugu
nekazariarena
han jarri dugu gure
indar ta kemena
berak eramango du
guztion izena
baratza da eskolako
leku politena

Asperten garen arren
noizbehinka klasean
gauza asko ikasi
dugu baratzean
zaborra murriztea
konposta egitean
barazkiak atera
lurra ereitean

Hurrengo ikasturtean
DBH hasi
ta gure baratzea
guk ezin ikusi
orain institutuan
behar dugu ikasi
adinez bagara ta
nahikoa nagusi

bertsoak 



B
a
r
a
c
k
a
b
e
r
t
s
o
a
k
A
r
i
m
a
g
a
k
o
k
o
r
l
i
z
e
e
i



Manu
Goigana Bengoetxea

Irabazlea 18 urtetik gorako sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2018 urtea



Ar(i)magabeko konplizeei

Doinua: Gure herri ttiki hau da

1

Munduan hainbeste gerra
bakezaleek sortuak,
Afganistan zein Siria
dira denok aitortuak.
Bolbora hautsez estali
zaizkie basamortuak,
eraisten dira etxeak,
suntsitzen dira ortuak,
bonbardatu bitartean
bideak eta portuak ...
eta gu telebistaren
babesean gotortuak! (BI)

2


Albistegiak goizero
dira hilotzen testigu,
zenbat milaka hildako
diren inoiz ez dakigu.
Bizitzeko joan guran,
heriok dauzka gatibu;
heriotzak, eri hotsak, ...
egi hotzez datozkigu.
Une gordin hauekiko
eragingaitz dirudigu;
atximurkada batek min
gehiago ematen digu. (BI)

3

Etxean bizimodurik
nola ez zaien gelditzen
hasten dira ihesaren
itsasoetan murgiltzen.
Gehienak hondoratzeak
ere ez gaitu larritzen,
eta iristen direnak
olatuak ebakitzen,
tokia badago baina,
antza, ez dira kabitzen;
borroka batzuk ez dira
armekin erabakitzen. (BI)

4

Joaterik ez dutenak
gerrak preso hartzen ditu,
beraien burua ere
ezin dute defenditu.
Fedea kargatzen dute
eta fusilak sentitu,
herren egin arren ekin,
sekula ez errenditu!
Eraso hauek ezingo
al genituzke gelditu
gurean balira legez
ikusiko bagenu? (BI)



5

Erasoak Europara
heltzean, baina, ai ama!
etxe atarian uzten
digute odol-orbana.
Fede txarrez jopuntuan
jartzen da gero Korana,
nola armen erakarle
izan daitekeen Iman-a.
Zergatik seinalatzen da
mendeku grina daukana,
gerra geronek eraman
badugu beraiengana? (BI)

6

Hemen sortutako armek
etxe-mira dute orain
Bartzelonakoa eta Paris
hartu dituzte euren gain.
Hauetz gain Niza, Brusela, ...
aipatzea dago bikain,
baina aipa genitzake
Bilbo, Gasteiz zein Andoain!
Gure enpresak badira
gerrak fabrikatzeko lain,
zergatik gaude guztia
eskutan lehertzeko zain? (BI)

7

Guk ekoitzitako armak
beti izan dira tabu
baina industrian balen
zaratak daramatzagu.
Geure buruarekiko
izan gaitezen ondradu:
hemendik irteten denak
'gure'tik pixka bat badu.
Beraz, ohartu zu ere
izan zaitezkeela 'gu',
gainontzean ispiluak
alfer-alferrik dauzkagu! (BI)

8

Nork ez daki inguruko
enpresa baten izenik?
Baina ez dut uste horrek
lagunduko lukeenik.
Ez da jeneralik lehen
lerroan aritzen denik,
beraz, nahiz eta errudun
ez zaitudan ipintzen nik,
zure lana norako den
pentsa ezazu lehenik
inoiz ez dezazun entzun
konplize izan zarenik (BI)

